

Uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2020ko otsaila |||224. zenbakia |||

ILUNTASUNETIK ARGITARA

Torturak jasan zituzten hiru
herritarren testigantzak jaso
ditu Uztarriak 20



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com

dica @www.dica.es

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943857244

Arragueta 27
20600
Eibar
943857244



MILAR LARRAMENDI



Julio Urkiza etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Maribe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41 www.sukaldeak.eus

www.milar.eus

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net

uztarria

Argitaratzailea. Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Egoitza. Soreasuko sormen gunea, 1. solairua, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. ISSN 1576-7337
Zenbakia. 224.a (2020ko otsaila)
Urtea. XXI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 78 04 12 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea. www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2020KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



04



34



24

iritzia

Inkesta. Elegante egunean bazkaria egiten al duzue? **13**

mamia

Elkarrizketa. Alaia Juaristi eskiatzailea gaztearekin solasean **04**
Klik. Herriko hainbat iturri zahar, irudietan **16**
Erreportajea. Kuadrilla batek urteak daramatza Astelehen Karnabalean taldean mozorrotzen **24**

jakiteko

Bestaldetik. Mikel Sanjuan tailugilea bertatik bertara **34**

Ba al dakizu azpeitiko pentsiodunek bi urte daramatzateLa pentsio duinen aldeko protestak egiten? **Uztarria**

Izan uztarriaren bazkide **943 15 03 58**

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **gara** Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro **dira** urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta...

ALAIA JUARISTI

eskiatzailea

“zailena psikologikoki indartsu egotea da”

Gaztea izanagatik, hainbat lorpen bereganatu du Alaia Juaristik iraupen eskian. Euskadiko bi txapel jantzita, atzerriko lehiak ditu jomugan orain. 📝📍 Ihintza Elustondo

Ez da geldirik egoteko jaioa Alaia Juaristi. Goizero, eskolara; arratsaldean, kirola; batzuetan, ingelesa; eta beste batzuetan, banda. Egutegi betebetea du azpeitiar gazteak, baina denerako denbora ateratzen du nola edo hala. Baina bada maite-maitea duen beste kontu bat: iraupen eskia. Ondo baino hobeto moldatzen da horretan, gainera: Baqueira Bereten (Herrialde Katalanak), Iraupen eskiko Euskadiko bi txapel jantzi berri ditu, 16 urtez azpikoen mailan.

Pozik egongo zara, ezta?

Bai. Denoi gustatzen zaigu lan egin ostean sariak eskuratzea.

Patinatzaile estiloan eta estilo klasikoan eskuratu dituzu txapel horiek. Zer alde

dago bataren eta bestearen artean?

Patinatzaile estiloaren kasuan, patinatzen ariko bagina bezala egiten dugu kirola, baina eskiekin. Estilo klasikoan, berriz, korrika bezala egiten dugu, baina pauso luzeak emanda. Kirol bera da, baina bi modalitate dira.

Rollerskia ere egiten duzu. Hori udan, ezta?

Bai, hori da. Elurrik ez dagoenean, errepidean ibiltzen gara, gurpilen gainean. Iraupen eskia hala egiten da: elurra dagoenean, elurretan; eta udan, rollerskia.

Bi txapel janzteaz gain, 16 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin aritzeko txartela ere lortu zenuen Baqueira Bereten, eta iraupen eski-

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 2004ako irailaren 12an.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizitokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Ikaslea.

ko Skiri Trophy nazioarteko txapelketan parte hartu zenuen urtarrilaren 19an, Italian. Zer moduz joan zen?

Oso gaizki. Modalitate asko daude iraupen eskian, eta normalean, 30 segundoko diferentziarekin-eta ateratzen gara kirolariak, erlojuaren kontra aritzeko. Baina kasu hartan, lehiakide guztiak batera atera ginen, masa batean. Guztira, 40 kale zeuden, eta zozketa egitean, Espainiako Selektzioari erdi-erdiko kalea tokatu zitzaion. Ondorioz, bi aldeetan lehiakide pila bat nituen. Dena den, hoge metro egin ostean, ki-

rolariak aukera zuten beste kaleetan sartzeko, eta une hori iritsi zenean, neska bat nire aurretik igaro zen, eta haren gainera erori nintzen; atzekoa nire gainera erori zen, haren atzekoa haren gainera... Jende pila bat erori ginen, eta nik ezin nuen jaiki. Jaiki nintzeneko gutxi batzuk baino ez ginen gelditzen atzean, denak aurrera joanda zeuden ordurako. Lasterketa, bestela, ondo egin nuen, erritmoa nahiko ondo mantendu nuen. Baina hasierako erorketa hark denean eragin zidan, eta oso zaila zen egoera horretan aurkariak aurreratzea.

Proba nahi bezain ondo joan ez arren, asteburua Italian pasatzeko aukera izango zenuen.



Aste horretako asteartean Jakara [Espainia] joan nintzen; asteazkenean, La Seu d' Urgellen [Herrialde Katalanak] geldialdia egin genuen; eta ostegun goizean abiatu ginen Italiara. Berez, hamazazpi ordu-edo pasatu behar genituen furgonetan, baina galduta ibili ginenez, azkenean hemezortzi-hemezortzi egin genituen.

Furgonetan egin zenuten bidaia?

Bai, eta egia esan, nahiko gogorra izan zen.

Esperientzia probatzeko balio izan dizu, behintzat.

Bai, eta asko ikasi dut. Italiako txapelketan parte hartu zuen eskaldun bakarra nintzen, nire gaitzarako taldekide guztiak katalanak ziren. Haien taktika ezberdi-

nak erabiltzen dituzte entrenatzeko, eta asko ikasi dut haiengandik.

Tolosako (Gipuzkoa) Uzturre klubarekin eta Neguko Kirolen Euskal Selektzioarekin lehiatzen zara. Noiz eta non entrenatzen duzu?

Astearteetan eta ostegunetan Tolosara joan behar izaten dut, baina astearteetan ezin izaten dut, ingelesa izaten dudalako. Horregatik, ostegunetan bakarrik joaten naiz, eta larunbatetan eta igandeetan, taldekide denok elkarrekin entrenatzen dugu, Jakan.

Denboraldiak irauten duen bitartean, astebururo Jakara joaten al zara?

Bai, eta elurrik ez baldin badago,

beste nonbaitera; Baqueira Beretara, esaterako. Baina, normalean, Jakara joaten gara. Horrez gain, astegunetan, egunero, neure kasa entrenatzen dut. Tolosan rollerskia egiten dut, eta Azpeitian, neure kabuz aritzen naiz: astean behin edo bitan gimnasia joaten naiz, eta gimnasia joaten naizen egunetan igeri ere egiten dut. Korrika ere egiten dut, patinetan ere ibiltzen naiz, eta euririk ari ez duenean, rollerskia egiten dut Lasao inguruan.

Zer gaitasun behar dira iraupen eskian ondo moldatzeko?

Indar eta hauspo handia behar dira. Horregatik, asteazkenetan, ingelesera joan aurretik, mendi buelta bat egitera joan ohi naiz

“oso gaizki joan zen skiri trophy nazioarteko txapelketa”

“Indar eta hauspo handia behar dira iraupen eskian aritzeko”

normalean. Mendira joatea ona da hauspoa lantzeko.

Eskolak arratsaldeko bos-tak arte izango dituzu, ezta?

Bai, hori da txarrena. Astelehenean, astearteetan eta ostegunetan, 17:00etan eskolatik atera eta ordubeteko tarte bakarrak izaten dut, ondoren ingelesera joaten naizelako. Eta gauetan, bandako entseguak izaten ditut. Horregatik, egun horietan, honela antolatzen naiz: entrenatu, ingelesera joan eta berriro entrenatzen dut. Bi zatitan banatzen dut entrenamendua. Asteazkenetan 16:30ean ateratzen naiz eskolatik, eta horregatik joaten naiz mendira egun horretan, korrika egitera.

Hainbeste kirolekin, ez al zara aspertzen?

Izaten ditut kirola egiteko betere gogorik ez dudan egunak. Oso gogo gutxi baldin badaukat, ez naiz joaten; izan ere, azkenean, nazka hartzen diozu kirolari. Hala koetan, hobe da ez joatea; eta bi egunera, berriro sekulako gogoia izaten dut.

Azpeitiarren artean ez da oso ohikoa iraupen eskia praktikatzeko. Gehienek eski alpinoa edo snowboarda praktikatzen dute inguruotan. Nondik datorkizu zuri afizioa?

Bai, egia esan, oso arraroa da iraupen eskian aritzea. Tolosana eta jende gehiagok praktikatzen du kirol hori, baina hemen ez. Kontua da nire gurasoak gaztetan joaten zirela iraupen eskia egitera, eta ni jaio nintzenean utzi

egin zutela. Dena den, nik 8 urte nituenean, Gabonetako opor batzuetan iraupen eskia egitera joatea otu zitzaion. Jakan Mayencos izeneko talde bat dago, eta talde horretan apuntatu ninduten, kirola probatzeko. Lehengusuarekin probatu nuen bi astez, eta gustatu egin zitzaidan. Horregatik segitu nuen, eta lau urte-edo pasatu nituen Mayencos taldearekin. Gero, taldez aldatu nintzen, Tolosako Uzturrera. Izan ere, Jakako taldeak neguko hiru hilabetetan soilik eskaintzen zituen entrenamenduak, eta Tolosakoak urte osoan ematen du aukera hori; jarraikorra da.

Eski alpinoa egiteko ohiturarik ba al duzu?

Lesioak izateko arriskua dela eta, iraupen eskiaren denboraldian zehar ez digute uzten eski alpinoa egiten. Denboraldia bukatzen denean joaten gara tarteka, baina ez zait asko gusutzen. Egun batean edo bitan ibiltzeko bai, baina denbora gehiagoz aritzen banaiz aspertu egiten naiz.

Iaz, bitan izan zinen Espainiako txapeldun: 16 urtez azpikoen iraupen eskiko Espainiako txapela jantzi zenuen neguan, eta rollerskiko txapela, berriz, udan. Aurten, zer helburu jarri diozu zeure buruari? Gauza bera errepikatzea nahiko zen nuke?

Gauza bera errepikatzea gustatuko litzaidakeen arren, aurten beste helburu bat jarri diot neure buruari. Espainiako txapelketetan

“Espainiatik kanpoko probetan parte hartzea nahi dut aurten”

“Beldurra ematen dit kirol honekin nazkatzeak”



Lasaoko bidegorrian praktikatu ohi du Juaristik rollerskia. ||| **Ihintza Elustondo**

bakarrik zentratu beharrean, handik kanpoko lasterketetan parte hartzea nahiko nuke. Kanpora joateko, baina, Espainiako Selektzioak hautatu beharko ninduke. Lehengo urtean ezin izan nuen joan, beharrezko puntuetara iristen ez nintzelako, eta aurten hori lortzea nahiko nuke. OPA Europako Kopa izeneko lasterketa bat dut buruan, urtero leku ezberdinetan jokatzeko dena. Espainiako Kopa lehen bi postuetan amaitzen dutenak sailkatzen dira lehia horretara, eta horra sailkatzea nahiko nuke. Gainera, junior mailako mundiala ere aurten jokatuko dute, eta han parte hartzea ere gustatuko litzaidake. Atzerrira joatea da aurtengo nire helburu nagusia. Hala eta guztiz, Espainiako txapelketan ere onena ematen ahaleginduko naiz.

Zer da zailena eskiatzerakoan?

Psikologikoki indartsu egotea.

Normalean, lasterketak bost kilometrokoak-eta izaten dira, eta distantzia hori, berez, ez da oso luzea. Hamabost-hogei minutu inguruokoak izaten dira probak, baina lasterketa guztietan egoten da lurra jotzen duzun momentu bat eta gehiago ezin duzula sentitzen duzuna. Agian, zure aurkaririk handiena ondo doala edo bere atzetik zoazela oharitzen zara, eta buruak momentu batean esaten dizu: “Ezin duzu gehiago”. Horri buelta ematea kostatu egiten da, baina behin buelta ematen diozunean, kito. Azkenean, ez du irabazten teknika onena duenak, gehien sufritzen duenak baizik, gehien saiatzen denak. Zeure dana ematea eta erregulatzea da zailena.

Zein da zure ametsik handiena?

Ez dakit. Hemendik urte batzuetara Espainiako Selektzioak deialdian sartzea nahiko nuke; hori da

orain arte buruan izan dudana. Baina Espainiako selektzioak Batxilergoko lehen edo bigarren mailan aukeratzeko ez bazaitu, oso zaila da geroago egitea, ikasketak eta kirola uztartzea zaila bihurtzen delako. Baina Batxilergoko lehen mailan hartzen bazaituzte, bigarren maila bi urtetan edo distantziara egiteko aukera ematen dizute; lagundu egiten dizute ikasketekin. Eta hori oso ondo dago. Baina egia esan, ez daukat argi zer nahi dudana. Izan ere, Espainiako Selektzioan sartuta ere, zenbat urte iraungo nuke talde horretan? Iruditzen zait urte askoan gauza bera egiten nazkatu egingo nintzatekeela. Beldurra ematen dit kirol honekin nazkatzeak.

Momentuan momentukoa, beraz.

Bai, orain gustura nago, eta momentuaz gozatu nahi dut. Gero geroakoak.*

Pattartegiak argi

Egunerokoak ez irensteko ahaleginak egiten ditugu. Abiada zoroan gabilta. Noizean behin burua atera eta begirada lasaituko diguten ortzemugak zaizkigu beharrezko, itsasoan itoko ez bagara.

Urte berria hasi dugu, Gabonetako jan-edanak ahazterako sasebastianak. Azpeitiarren festarako ospeak ez du etenik. Halakoe-tan gure amarekin akordatzen naiz: "Hau bezalako herririk! Urte osoan arropa gora eta arropa behera, danborrada dela, mozorroak direla... Alde ederki ibiltzen da baserrian!". Eta gu gustura arropa janzte-eranzte horretan. Mozorrotzea maite, edozein izanik ere aitzakia.

Baserrian ere izaten zen arropak gordezten ziren kutxa. Isilegi genbiltzala kezkatuta gure bila hasten zirenean, han aurkitzen gintuzten birramonaren soineko, aitonaren jaka nahiz amonaren zapatak jantzita. Eta ondoren, sukalderako desfilea.

Urteekin gauzak aldatu, zahartu egiten dira; zahartu egiten gara. Badirudi haurren aitzakian mozorrotzea errazagoa dela. Ez naiz azken urteetan mozorrotuta ibili Azpeitian, baina begiratu izan dut *gaupaseroen ar-gazkia*. Garaiak aldatu egiten dira, eta ez beti txarrerako.

Atharratzen, Tolosan, Baionan, Azkoitian nahiz Azpeitian. Ez dut ezer handirik behar izan armairuan nituen arropak atera eta festa egiteko. Lagunartea. Oroitzapen ederrenetakoak Atharratzen ditut, Ezpeletako trikiti taldearekin kalejira egitera joanda. Bezperan izugarritzko haizetean edo tenpesta izana zen; kalte handiak eragin zituen, eta argi indarrrik gabe zegoen herria. Irudikatzen dituzue Azpeitian karnabalak argi-indarrrik gabe?

Inguruetako jendearentzat neguaren bukaera ospatzeko, biltzeko aitzakia omen nauterriak. Batez ere, emazte edo emakumeentzat. Ostaturia eta jantokia zuten tabernek argi-indar generadoreak ezarri zituzten otorduak prestatu ahal izateko. Tabernetan jen-



olatz aranguren

III **Eta gu gustura arropa janzte-eranzte horretan. Mozorrotzea maite, edozein izanik ere aitzakia**



deak jotzen zekizkien musika tresnekin nahiz kantuz girotu ziren bazterrak. Ez ziren gutxi. Bazkaltzeko garaian mahaiak beteta, emakumeak batez ere mahai bueltan, kantuz bazkal ondorenean. Jendeak hasieran frantsesez, orduak aurrera joan ahala, euskaraz. Eta azkenean zuberotar-azpeitiar hizkerak hain urrun ez zeudela konturatu, elkar ederki ulerzen genuela hala nahi baldin bagenuen.

Urtean zehar itxita egon ohi zen ostaturia ireki zuten bertakoentzat, tabernari lanbidea maite zuen familia bat omen. Eta gu barrura. Herriko xelebrekeria izan ginen. Atharratzen galduta zebiltzan bi *espainulak*. Izara batez estalita gitarra bat aldean zuen *Ala Jinkua*, *Agosti Xaho* bera begitarte ilunez tximiniaren ondoan berotu nahian... Gau surrealista izan zen. Euskaldun izatearen nekezaz aritu zitzaizkigun, *De Trevilleren* azken hitzak kantuz, lagun. *Hori bera da denen ixtoria*.

Eguneroko grisari ihes

Astearte goizaldeko txaranga, Queen taldearen kontzertu inprobisatuak, nazien itzulera, Enparantza Nagusia gimnasio erraldoi bihurtuta, gaupaseroen aerobik saioa... Azpeitia ez da atzean gelditzekoa. BUP ikasten genuenean ere gogoan dut irakasleak mozorrotuta etortzen zitzaizkigula eskola ematera. Herriaren osasunaren neurgarri dira hein batean halakoak, eguneroko grisak ez irensteko ahalegin bat.

"Asteartean txingortuta jaiki zen eguna. Hala ere, herri ohitura hezi ezina izaki. Goizeko bostetako pattartegiak argi ziren. Txingorren beldur ez zirenak baziren, eguraldi txakurratetik ohe gain estalkipean egon zale ez zirenak milaka ziren. Erdikalea zahar eta gaztez bete. Txokolo, Troski eta atabal, kalera ateratzeko txistuka". *Euzkadi* egunkariak 1931n argitaratutako *Azpeitiko Inauterien kronika*. Gauzak ez dira horrenbeste aldatu. Pattartegiak argi jarraituko dute.*

Marka

Badakit ez zaizuela batere inporta, baina segidako lerroak beren tes-
tinguruan uler ditzazuen datua lagungarri
izan dakizuekeelakoan, esango dizuet: ez
naiz Azpeitian bizi. Horregatik, batzuetan gal-
detzen diot neure buruari ea zer demontre
egiten dudan hemen aldiro idazten. Ez dau-
kat oso argi. "Astean bizpahiru aldiz etortzen
haiz hona, hori ere egia dun", pentsatu izan
dut inoiz. Baina bisitari sentitu ohi naiz
hemen, ezinbesteko turista.

Detaile txikien bitartez konturatzen naiz
arroztasun horretaz, normalean. Enparan do-
rretxe inguruko herri lanei, esaterako, puntu
gazi-goza batekin begiratu izan diet. Oinez-
koentzat izango zela jakin orduko hasi nin-
tzen inguruan tabernarik-eta ba ote dagoen
begira. Ni bizi naizen herrian, izan ere, oinez-
koentzakoak izango zela esan ziguten hain-
bat espazio –asko–, denborarekin, taberne-
tako terraza bihurtu dira. Lehen autoei iskin
egiten ibili behar izaten genuen tokian, orain,
jendez betetako aulki eta mahai ginkana dau-
kagu. Eta kexurik ez egitea hobe. Bezeroak
beti dauka arrazoia, izan ere. Turistak badira,
are gehiago. Oinezkoak ez gara herri lanen
bezero, ematen duenez.

Behin honaino iritsita, esango dizuet, hori
ere batere ez zaizuela inporta badakidan
arren: Zarautzen bizi naiz. Babes ofizialeko
etxeak dirurik ez zeukan jendearentzat egiten
ziren garaiko adur on kolpe bati esker. "A
klaro, Zarautzen! Hori turistaz josia dago. Az-
peitia ez da herri turistikoa", esango didazue.
Bale. Begi bistakoa da: ez dauka plaiarik, ez
da jende andana etortzen hona bisitan.

500 urteko bidea

Urtebete ere ez da, gogoan izango duzue,
"turismoa elkarlanean ordenatzeko plana"
aurkeztu zutela hemen, Inaziotar Bidea oina-
rri hartuta. Bide horren ustiapen turistikoaren
lehen harria, 2015eko abuztuaren 1ean be-



amagoia gurrutxaga

Turismoak denerako balio
du XXI. mendeko Euskal
Herri honetan. Zenbaitetan,
oinezko xumeei espazio
publikoa kentzeko



deinkatu zuen Jose Ignacio Munilla gotzai-
nak, Loiolako santutegian. Handik urtebete-
ra, "turistak Loiolatik Alde Zaharrera gertuta-
tzea eta herriko ondare kulturala eta naturala
balioan jartzea" nahi zuen udalak, halaxe
ageri da aldizkari honen hemerrotekan.

Inazio Loiolakoa –uko egiten diot haren
santutasun titulua onartu eta zabaltzeari–
hazi, hezi eta erlijioso bihurtu zen guneak
ezagutarazteko hiru ibilbide turistiko iragarri
zituzten orduan, Azpeitia Experience (sic)
markaren pean. Turismo proiektu horretan,
Eusko Jaurlaritza –Basquetour turismo
agentziaren bitartez–, Gipuzkoako Foru Al-
dunia, Azpeitiko Udala eta jesuitak –Deus-
tuko beren unibertsitate pribatuaren bitar-
tez– sartu dira.

Ez dakit bultzatu nahi duten bide hori oi-
nezkoentzako Enparan dorretxe ingurutik pa-
satuko den, baina laster jakingo dugula uste
dut. Datorren urtean beteko dira 500 urte
Loiolako jauntxo-semea Iruñean zauritu zute-
la –Nafarroa Gaztelarena izan zedin borro-
katzen ari zela– eta katolikoek jainkoa besar-
katu zuela. Jesuitek aspaldi iragarriak dituzte
ospakizun ekitaldiak. Nik ez diet jaramon
handirik egingo. Batetik, ez zaidalako batere
interesatzen. Bestetik, nahikoa izango duda-
lako Getaria auzo herrian iragarrita dauden
Juan Sebastian Elkanoren gorazarrerako eki-
taldi betekada liseritzen. Hori ere, turismoa-
ren amua lagun. Turismoak denerako balio
du XXI. mendeko Euskal Herri honetan. Zen-
baitetan, oinezko xumeei espazio publikoa
kentzeko. Propaganda erlijioso edota kolo-
nialistarako ere bai sarri. Ez dauka zertan beti
hala izan, ados. Esperimentu eta esperimen-
tu artean, baina, esperientzia ahazteko joera
temosoa daukagu. Marka da.*

Artista

“Dual ereduari esker, unibertsitatean ikasten ez diren gauza asko barneratu ditut”



MyGADE (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) dual eredu graduaren hirugarren mailako ikaslea da Miren Caballero (Azpeitia, 20 urte). Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean ari da ikasketak gauzatzen, Oñatiko campusean.

Definitu apur bat zure burua: ba al duzu zaletasunik?

Batxilergoa Urola Ikastolan egin nuen. Gaztetxoagoa nintzanean Izarraitz igeri elkartean aritu nintzen, eta Iraurgi saskibaloi taldean ere ibilitakoa naiz. Orain, korrika egiten dut denbora librean.

Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Mondragon Unibertsitateko ate irekietara joan aurretik, hainbat gradu ikusi nituen

beste unibertsitate batzuetan. Baina lagun batek myGADE graduari buruz hitz egin zidan, eta ate irekietara joan nintzen informazioa jasotzera. Unibertsitateko metodologiak eta lau urtetan zehar formazio duala jasotzeko aukerak konbentzitu egin ninduen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Formakuntza akademikoa, lau urtetan zehar enpresan jarduteko aukera, atzerrira joateko parada, jende berria ezagutzea... Pertsonalki eta profesionalki hazten lagundu didan gradu bat ari da izaten, nahiz eta batzuetan gogorra den.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Erabiltzen den metodologia berritzailea aproposa iruditzen zait ikasleak motibatuzeko. Klaseak dinamikoak izaten dira, eta talde lan zein aurkezpen ugari izaten ditugu. Taldean lan egiten jakiteak asko laguntzen dit enpresara joaten naizenean.

Bestalde, aurkezpenak egitearekin jende aurrean lasai hitz egiten ikasi dut. Azkenik, ikasgai batzuk ingelesez izaten ditugu, eta hori oso aberasgarria da enpresen mundurako.

Zer da unibertsitatetik gehien gustatzen zaizuna? Eta hobetzeko zerbait ba al da?

Lehenengo mailatik enpresa-tesuinguru erreala batean aritzeak beste inon ikasiko ez ditudan gauzak barneratzea ahalbidetu dit; klasean ikasitakoa lanean aplikatzen ikasi dut. Bestalde, neguan batik bat, ez da erraza kotxean joan-etorrian hainbeste denbora pasatzea.

Dual eredu tarteko, lanean ari zara, baita ikasten ere. Non ari zara lanean eta zer lan mota egiten dituzu?

Graduko lehenengo mailan hasi nintzen dual ereduari. La bi urte daramatzat Altuna Hermanos enpresan lanean, finantza saillean. Oso gustura nago, lan-kideak beti saiatzen baitira niri gauza desberdinak irakasten. Askok laguntzen didate.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Hasiere batean, oso urduri joaten nintzen lanera, ez bainekien ezer enpresa munduari buruz. Dena den, ikasteko gogo handia neukan. Eredu dualari esker unibertsitatean ikasten ez diren gauza asko ere barneratu ditut. Enpresan gauzatzen ari naizen praktikei esker, nire formazioa askoz ere hobea da gaur egun.

Atzerrian esperientziarik bizi izan al duzu? Non? Eta nolako izan da egonaldia?

Irailean eta urrian Seul, Hego Korean, izan nintzen IEP (International Experience Program) programa tarteko. Hango egonaldian asko ikasi nuen Asiako enpresen funtzionamenduari buruz. Izan ere, Koreako hainbat enpresa bisitatu genituen eta Asian Business Context izeneko saioak jaso genituen irakasle korear baten eskutik. Bestalde, kulturari lotutako bitak ere egin genituen. Esperientzia oso aberasgarria izan da Seulen bizitakoa.

|||HIZKUNTZ ESKUBIDEAK|||

Azpeitiko taldea martxan

Uztarriak Egunean Behin jokoaren taldea osatu du. Martxan da zortzi aste iraungo duen denboraldia. Astero puntuazio onena eskuratzen duten herritarrek Txintxu gozotegian gosari bat irabaziko dute. 🍷 Julene Frantzesena

Otsailaren 3arekin, astelehenez, hasi zen Egunean Behin jokoaren hirugarren denboraldia. Aurreko bi denboraldietan izugarriko arrakasta izan du Codesyntax enpresak garatutako jokoak, eta Uztarria Komunikazio Taldeak pausoa eman eta Azpeitiko taldea osatzea erabaki du hirugarren denboraldira begira.

Egunean Behin eskuko telefonoetarako aplikazioa *Google Play* edo *App Store* plataformetatik deskarga daiteke. Behin aplikazioa martxan jarrita, lehen orriaren behealdean kokatzen den Taldeak atalean, (+) ikurra zapaldu, giltzaren gainean klikatu eta C6BB98 kodea sartu behar da; **UZTARRIA (Azpeitia)** izeneko taldera batzea lortuko du erabiltzaileak modu horretan. Jokoa astelehenean hasi bazen ere, herritarrek nahi dutenean izango dute jokora batzeko aukera.

Izenak dioen moduan, egunean behin jokatu daiteke sakelako telefonorako egindako aplikazioan. Hamar galdera erantzun behar dituzte erabiltzaileek ahalik eta denbora laburrenean, eta puntuazioaren arabera, astero sariak banatzen dituzte jokoaren sustatzaileek. Izan ere, astekakoa izaten da sailkapena, astelehenetik igandera bitartean lortutako emaitzen arabera.

Uztarriak ere sari berezi bat jarri du logika horri segituta. Hain zuzen ere, astea sailkapenaren buruan bukatzen duen lehiakideak Txintxu gozotegian gosari bat irabaziko du. Gosari hori astero-astero banatuko du Uztarriak, Txintxu gozotegiari esker.

Gainera, denboraldia bukatzean jokalaririk onenak sari berezi bat jasoko du. Bi lagunentzako otordu bat irabaziko du denboraldian zehar puntuazio onena lortzen duen herritarrek.*



Iera Zuazolazigorraga.

|||ESANA DAGO|||

|||“Ez gara ohartzen komunikazioa bideratzeko mila modu daudela”

|||“Gabeziarik handiena da ahozko komunikazioa dela orain arte onartu den bakarra”

IERA
ZUAZOLAZIGORRAGA
logopeda eta pedagogo

|||“Inork ez du gure semea bueltan ekarriko, baina, gutxienez, egoera honek balio beza halako istripuak ez errepikatze”

ARANTXA ALTUNA
N-121-A errepidean
istripuz hil zen Mikel
Manzanoren ama

egunean behin?

Galdera-erantzunen euskarazko jokia

Egunean Behin partida, Astean Behin **SARIA!**

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salba Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

CITROËN

Alerza Autoak

943 811 915 - AZPEITIA
alerzautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Izerdiari stop

Erraz, azkar, gozo eta eroso hitz atseginak ditugu. Aldiz, *nekez*, *makal*, *mikatz* eta *deseroso* hitzak kontrako eztarrira joaten zaizkigu. *Ahalegina* "emaidazu egina"-k ordezkatu du. *Orain* eta *geroren* ordena aldatu egin dugu. Izerdia da gizaldi honetako izurria. Kolpe zorrik jo gabe erregeen pare bizitzea posible dela sinetsarazi digute eta sinestu egin dugulakoan nago. Joder Txetxu, hori duk hori erretolika merkea!

Etxeko sofán etzan, zure gustuko serie guztiak bata bestearen atzetik ikusi, arnasa hartzeko futbol partidaren bat tartekatu (edo

alderantziz), haurrak Play-arekin gustura utzi, afaria mugikorreko aplikazio baten bidez eskatu, erosketak dendan baino merkeago amarekin zerikusi gutxi duen *ama*-rekin hasten den enpresa erraldoi horren bidez egin, besteek egiten dutenaren berri Instan izan eta munduaren berri txoriaren sarean gustuko dituzun jainkotxoek karaktere gutxi batzutan emanda jaso. Eta patrikan daukazun deabruaren gailu txiki horretatik apustu egin eta dirua barra-barra irabazi. Horra, erraz, azkar, gozo eta eroso dena. Apokaliptikoez esan dezatela gero erregeen pare bizitzea ez dela

posible. Eta hori guztia, izerdi tanta bakar bat isuri gabe. Gozo eta eroso.

Honela, paradisuari bisita, etor bedi norbait bide okerretik goazela esanez. Haurrekin jolasteko denbora hartu, kilometro zeroa jaki osasungarriak etxeko su txikian prestatu, kirola egin, dendaz denda erosketak egin, lagunekin eta ezagunekin aurrez aurre egon eta hitz egin, eta komeni bada arrazoiekin eztabaidatu, horretarako aurrez irakurri, entzun, pentsatu eta hausnartu... Joder, Txetxu, hori duk hori bizitza konplikatu beharra!

Izerdiak aska zaitzala!✘



|||||||txetxu urbieta|||||||

|| IKUSTEKO || |||||



▲ ETXAURREAK, FESTETARAKO PRESTATUTA ETA GIROTUTA.

Sansebastianetako eta karnabaletako sokamuturrerako babes neurriak hartzen dituzte Alde Zaharrean merkatariak nahiz bizilagunak. Esaterako, Plaza Txikiko lokal bateko eta karrera bateko ateen gainetan egurrezko xaflak jarri dituzte, baina festa giroko marrazkiekin apainduta. 🍷🍷 Nerea Uranga✘

|||URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Balioen aldarrikapenak

GIZARTEA. Badirudi festa aldarrikapen politikoak egiteko eta erabiltzeko beste tresna bat dela gure artean. Denboraren ondorioz, garbi ikusi dugu hori hórrela dela eta ez duela egunerokotasunik galdu. Beste aldarri batzuk egiteko ere balio duela bistan da, ordea. Udalak boluntarioei egindako omenaldiak, umeen parkeko inklusioaren aldeko aldarrikapenak. Balioen aldarrikapenerako guneak irekitzen ari dira.



|||Juan Carlos Arellano|||



Zubia, oinezkoentzat

HIRIGINTZA. Benetan eskertzekoa da Enparan zubiari eta inguruari behar bezalako aldaketa eraginkor bat egin izana. Egutero hor dabilen jendetzak begirune hori eta gehiago behar du. Autoen eta oinezkoen elkarbitzita uztartzea ez da erraza, baina saiakera egin behar da.



Talde gehiago, gune gehiago?

FESTAK. Ez da horrenbeste denbora pasatu herriko plazan danborradako talde gehiagorentzat lekurik ez zegoela esaten zutenetik. Gaur egun, 30 talde eta 1.500 lagun sartzen dira plazan San Sebastian bezperan. Gauzak aldatzen joaten direnaren adierazle. Gainera, parrokia

aurrean gertatzen denari bere garaian irtenbidea eman zitzaion. Baina gaur egun, ez duela balio iruditzen zait. Agian, talde ezberdinek gune ezberdinetan jo behar dute ordu horretan: Olazko Andre Mariaren plazan, Balentina Agirre plazan, Plaza Txikian...*

INKESTA

Elegante egunean bazkaria egiten al duzue?

I. Elustondo/N. Uranga

AITZIBER SALEGI

38 urte



"Aitaren etxean bazkaltzen dugu. Umeak daudenetik, ez dago besterik. Haurrak jaio aurretik, jabetxera joaten ginen bazkaltzera, baina orain ez".

UNAI ODRIOZOLA

19 urte



"Behin joan ginen jabetxe batera, baina azkenaldian kalean gelditzen gara. Izan ere, bazkaltzera joanez gero, zezenaren irteera ikusteko denborarik ez du ematen, eta hori asko gustatzen zait".

UNAI ALBERDI

19 urte



"Nik nahi izaten dut jabetxeren batera joatea, baina lagunek ez.

Aurretik ez gara antolatzen, eta eguna iristean, pintxo bat jango dugula-eta esaten didate. Bazkaldu nahi izaten duen bakarrenetakoa naiz kuadrillan".

MARIANGELES KORTA

66 urte



"Kalera ateratzen naiz egun horretan, baina etxera itzultzen naiz bazkaltzera. Umeak prestatu izan ditut Txikiteo

Elegantrako, baina ni neu ez naiz sekula jantzi. Hala ere, disfrutatzen dut egun hori".*

'Ebakia' dela eta

Esne pixka batekiko kafeari *ebakia* esaten zaio euskaraz. Lagun zegamar batek (euskaldun zahar peto-petoak) dio *ebakia* esateari gorrotoa diola, gaztelaniazko *cafe cortado* hitzaren kalko hutsa eta euskaraz zentzurik gabekoa delako. Dena den, *ebakia* esatea zabaldua dago, baita Ipar Euskal Herrian ere. Noiz hasi ote ziren *cafe cortadori ebakia* esaten?

Euskaltzaindiaren Euskararen Corpus Estatistikoa begiratuta, Xabier Gereñok 1990eko ipuin batean erabiltzen du. Hiztegieta, berriz, Elhuyar Hiztegi (2000) *kafe ebaki* ageri da, baina 3000 Hiztegi (2002) ez da ageri; Euskaltzaindiaren Hiztegi *ebaki* jartzen du. Eta horrekin batera, honako ohar hau: "Beharbada komeni da (kafe) *ebakia* ere biltzea *cortado* adierazteko (2007-07-17)".

Beraz, 1990ean behintzat, ipuin batean azaldu zenetik -ahoz lehenagotik erabiliko zen, noski- hemezazpi urte igaro eta gero, Euskaltzaindiak onartu egin zuela dirudi, eta *Euskara Batua*ren *Eskuliburuan* ho-



hiromi yoshida

nela dio: "Kalkoa berez ez da baztertzea... kalko batzuk egokiak izan litezkeelako, hizkuntzak beretzat naturaltzen dituen neurrian"; eta (kafe) *ebakia*, *diru beltz* eta abar omen dira kalko egokiak. Kalko okerrak, berriz, *ilea hartu* eta abar. Baina zein den egokia eta zein ez erabakitzea arbitrarioa da; hasieran aipatu dudana zegamar horri *ebakia* ez zaio batera egokia iruditzen, euskaltzainei egokia iruditu arren.

Lagun horrek mailegua den *kortaua* erabiltzen du, kalko desegokia baino naturalago iruditzen baitzaio. Maileguak baztertzeagatik erabil daiteke kalkoa; izan ere, kalkoak behintzat itxura euskalduna du (nahiz eta barrutik arrotz izan). Eta euskara hutsezko hitza erabiltzea? Lagun azpeitiar batek dio bere aitak "kafea esne pixka batekin" ziola. Hori oso jatorra da, baina tamalez, tabernetan-eta erabiltzeko luze samarra... Lazkaoko irakasle batek *esne-kafea* hitza proposatu omen zuen, baina ez zen batera zabaldu... eta kalko egokia omen den *ebakia* nagusitu da.*

Gal detzen hasita, sekula zenbatu al dute azkoitia eta azpeitia artean paseoan ibiltzen den jende kopurua? Uztarrria

Iragarki meta

Zenbat herritar pisatu ote ziren azken Gabonetan? Baztertutako zenbat baskula piztu ote ziren? Garrantzia gehiegi ematen zaio gorputzaren masari, are eta handiagoa Gabon jaietan. "Zenbat kilo hartu ote ditut opor hauetan?" edo "urte berri honetan kilo batzuk gainera kentzea dut erronka!" gisako esaldirik entzun al zenuten? Nire etxean ere bada baskula; nolako erabilera, halako itxura izan ohi da, eta hantxe aurkitu nuen komuneko armairupean, hautsezko mantaren epelean. Urte asko pasatu dira nire burua pisatzeko gailuaren gainean azkenengoz jarri nuenetik, baina Gabon hauetan makina martxan jartzea egokitu zait.

Larunbat goiz bat zen. Piztu eta hantxe jarri nion gainean gure etxe atariko iragarkien buzoian zeuden paperez eginiko meta. Ni naiz gure etxepea garbitzeko arduraduna, beraz, buzoi hori hustea ere niri dagokit. Hustea diot, bai, beti beteta egoten baita. Arreta piztu izan dit iristen den iragarki kopuruak eta horien erabile-




irati aranguren

rak; hori hala, azken Gabonetan ikertzeari ekin nion! Zenbat iragarki iristen dira? Zerenak? Nork irakurtzen ditu?

Egun hartan bildutako iragarkiak udalarenak eta herriko merkatarienak, txiki zein handienak, ziren. Sekula inork irakurri gabeko sortak oraindik perfektu lerrokatuta zeuden; eta jada egunak zeramatatenez, zaramara botatzeko garaia zen. Halako bolumena izanik, pisatzea erabaki nuen lehendabizi. Ia sei kiloko masa zuen paper multzoak!

Azkenaldian errua plastikoari botatzen diogun arren, kontaezina da gure planeta zaintzeko kontuan hartu beharreko irizpideen zerrenda. Ez dakit zein den kasu honen konponbidea, publikitate gutxitzea edota dagoeneko inprimatuta dagoen paper hori, herriko eskaintzen berri izateko, behin bada ere irakurtzea. Dakidana da paper sorta horiek inprimagailutik zuzen-zuzenean zakarretara botatzeak tripako mina ematen didala, Gabonetako betekadek bezalatsu.*

Herri galdeketa 2020 
denon artean

SOKAMUTURRA

/ Toro ensogahogado



Bai, astero
/ Sí, Tordesillas



Ez, eskerrik asko
/ No, Jesús llora

Gurutzea egin hautatutako erantzunean.
/ Crucifica la respuesta seleccionada.

Boto paper hau bakarra, pertsonala eta besterenezina da.
/ Menuda papeleta que es única, personal e infranqueable.

16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute.
/ Podrán participar artistas y toreros mayores de 16 años.

Galdeketa honen emaitza loteslea izango da.
/ El resultado de esta votación será culminante.



...Iraultzaren zain (II)

Besteenganako zaintzarekin zer egiten dugun galdetuz amaitu nuen azken hilabete-ko *Zaintza irauliz...* artikulua.

Norbere zaintza bideratzeko arloak zerrendatu nizkizuen, bide batez, denon eskura ez daudela erakusteko. Izan ere, gimnasiotik edo terapeutarenetik irteetan, arropa jasangarriak jantzita ditugula elikagai ekologikoak erostera joatea gero eta pribilegiatu gutxiagok daukagun aukera da. Dirua behar dela, alegia, norbere zaintzaren alderdirik *cool*enak zaintzeko.

Besteekiko zaintzaren ertzak arantzatsua-
goak izan daitezke, ordea. Lagunak, bikotea,

komunitatea... zaindu ditzazkegu. Harremanak, alegia. "Eman da jaso, jaso eta eman, elkartasuna da hori", diote sudurgorriek, eta trukean ezer espero ez dugula badiogu ere, zurrumbilo horretan zaindu ohi gara elkar.

Besteen zaintza ardura hartzea ere bada, batez ere, autonomoak ez diren pertsonen ingurukoaz ari garenean. Gure ondorengoen zaintzaren aurrean hasi gara betaurrekoak graduatzen: behar fisikoetatik haratago, emozionalak ere bermatzen; kalitatezko denbora eskaintzearen garrantziaz jabetzen... Gizonok ere hasi gara ereduak berreraikitzen.



|||||||felipe murillo|||

Gure aurrekoen zaintza korapilatzen zaigu, ordea, ardura zama ere bihur litekeelako, besteak beste. Eta zamak zaintzaren arerioak dirrelakoan nago, batez ere, delegatu egin ohi ditugulako erdigunean jarri beharrean. Bitartean, gure zaharren ipurdiak garbitzearen ardura hartu dutenak greban dabilta isil antzean, eginkizunei uko egin gabe. Bi zeregin dituzte orain: guk saihestu ditugun egitekoak bermatzea eta beren eskubideak defendatzea.

Zaintzarik iraultzaileena gure zaintzaileak zaintzea litzateke. Gure zain omen daude.*

Erotikan Plax!



|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

Autoeskolako irakaslea da Olatz Egiguren, eta hari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Noiz eta zergatik hasi zinen lan honetan?

30 urterekin. Betidanik izan dut gustuko gidatzea. Arreta piztu zidan neuk karneta ateratuenean.

Gidaritza ikaslearen esku uztea eta ondoan joatea erraza al da?

Ez dago besterik. Konfiantza ematea ezinbestekoa da, berak ere sinets dezan, arriskuak bere gain har ditzan eta mugak jartzen ikas dezan.

Sexualitatearekin loturarik egiten duzu?

Erabatekoa. Zeure buruarengan konfiantza izan behar duzu. Erabakiak hartzea eta nora joan nahi duzun jakitea garrantzitsuak dira.

Zer pista eman dezake norberaren autoak?

Ekonomikoki non kokatzen zaren, adibidez?

Gidatzeko eta ligatzeko, bietarako lagungarri zaigun zerbait?

|||OLATZ EGIGUREN|||

Adina. 53 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Errepidearen formakuntzarako irakaslea.



|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, hilabetea: hilaren 15ean
(16:00-19:00) eta 5ean (10:00-13:00).

Gai garena sinestea.

Uste duzu sexualitatearen gaian ere gidatzeko karneta beharko genukeela?

Zerbait aldatu edo berritu nahi badugu, antolaketa eta negoziazioa beharrezkoak izango ditugu.

Alde teorikoan edo praktikotan, zeinetan hobeto?

Biei neurri bereko garrantzia emango nieke.

Sexu kontuetan, inoiz jarri al diozu norbaiti semaforo gorria?

Bai, eta eskerrak. Batzuetan gelditu egin behar da, bestearen txanda iritsi delako.

Nola arrankatzen edo pizten da Olatz?

Antonio Vegaren *El sitio de mi recreo* kantarekin itolarria eta plazera pizten zaizkit aldi berean.

Bozina ozen edo isil antzera?

Erabiltzea tokatzen denean, ozen. **Ikasteko maniobra zailena?** Noranzkoak aldatzea.

Anekdotaren bat?

Istripu bat izan genuen behin. Nik 35 urte izango nituen, ikasleak 55. Ertzainak hurbildu eta ikaslearengana joan ziren zuzenean, irakaslea zelakoan. Lanbide maskulinoa bailitzan ikusten da gurea.*



Iturri zaharretik...

Azpeitiko udalerrian barrena hamaika iturri dago; berriak, gehienak. Aspaldikoak diren batzuk aukeratu dira irudietan erakusteko. 📌📷 Nora Alberdi



▲ ALBERGAKO ITURRIAK.

Lau iturrik osatzen dute Done Jakue kaleko albergaren eraikineko etxaurrea; erdian bi daude, eta beste bi, alde banatan. Irudi oso bereziak dituzte iturriek. 1842. urtean egin zuten eraikina, eta 1982. eta 1984. urteen artean berritu egin zuten. Jose Javier Olazabalen aginduz eraiki zuten alberga.

▼ BARRENETXEKO ITURRIA.

Sanjuandegiko Barrenetxe auzoan, modu naturalean sortzen den ur beroa aprobetxatzeko, 300 metro luzeko hodi isolatu bat jarri zuten Barrenetxeko iturburutik igerilekuko sotoraino, 2014. urtean. Igerilekuko ura berotzeko erabiltzen dute egun iturburu horretako ura.

▲ ITURRI TXIKI.

Aukeratutako zortzi iturrietatik ur emari txikiena Done Jakue kalekoak du. Bi animaliak osatzen dute iturriaren ahoa; dordokak eta gainean duen igelak. Iturriaren azpian iturria eraiki zen urtea dago adierazita: 1986. urtea, hain zuzen ere. Sorreran, ondoan gizonezko baten irudia zuen iturriak, zutik.





▲ **KALEBARRENEKO ITURRIA.**

1765eko urriaren 13an erabaki zuen Azpeitiko Udalak Urrestillan iturri berria eraikitzea, herritarrek ur behar handia zutelako. Loiolako Santutegian lanean ibilitako Iberoko Inazio izendatu zuten obren arduradun. 1789an bukatu zuten iturria.

► **NUARBEEKOA.**

Txistu etxearen aurrean dago iturria, garai batean alberga zenaren parean. Egun, iturri txiki bat dago, eta garbilekua nahikoa utzita dago.





▲▼ LOIOLAN.

Loiolan, Kabi Eder etxeari begira jarriz gero, ezker aldean iturri txiki bat ikus daiteke. Loiolako lorategiko iturrian, berriz, ur emaria eta kostua aztertu ostean, ura moztu zuen udalak 2016. urtean. Hori egin aurretik, ordea, iturri zaharraren ondoan, beste iturri bat jarri zuen.

▼ AZKETAKO ITURRIA

Azpeititik Xoxoterako bidean, Izarraitz mendikatean, 705 metrora dagoen iturria da Azketakoa. Imanol Elias zenak idatzitako 'Azpeitia historian zehar' liburuan, iturriaz honako hau dago jasota: "Azketako iturriaren berri 1559. urtean ematen zaigu, udalak konponketa lanak egin behar zituela eta. Gero, 1899an ere konpondu zuten iturria, auzolanean".



T

orturaren Aurkako Eguna da otsailaren 13a Euskal Herrian; izan ere, Espainiako Poliziaren eskuetan zela, torturak jasan ostean hil zen Joxe Arregi 1981eko egun horretan.

Milaka dira motibo politikoz poliziaren tortura psikologikoak nahiz fisikoak jasan dituzten euskal herritarrek; Azpeitian, esaterako, 97 tortura kasu dokumentatu ditu Aranzadi zientzia elkarteak 1960. eta 2017. urteen artean.

Torturak pairatu dituzten herritar batzuekin jarri da harremanetan Uztarria, haien testigantzak jasotzeko asmoz, eta honako hiru herritar hauek orain urte batzuk bizi izan zituztenak ekarri dituzte gogora.

JEXUX ARRIZABALAGA

||| **Jaioturtea.** 1947. urtea. ||| **Jaiolekua.** Azpeitia. ||| **Tortura mota.** Psikologikoa eta fisikoa. ||| **Data:** 1968. urtea.

“Publiko egin zen lehen tortura salaketa izan zen gurea”

“Garain hartan, beste asko bezala, ETAn sartu nintzen; propagandaren ardura nuen. 20 urte nituen 68an, eta frankismoa bizi-bizirik zegoen. ETAk ordura arte ez zuen inor hil; ez zuen heriotzarekin lotutako ekintzarik gauzatu. Lagun batzuekin Azpeititik Tolosara nindoala, Bentaundiko bidegurutzean zuten



Aranzadik jasota dituen azpeitiarren tortura kasuak urte hauetan jazotakoak dira. ||| Iñaki Martinez

Itxi ezin diren zauriak

1960. eta 2017. urteen artean baina hamarkada desberdinetan torturak jasan zituzten hiru herritarren lekukotzak, argitara. 📎 Maialen Etxaniz eta Julene Frantzesena



kontrolean gelditu gintuzten guardia zibilek, eta paperak atzeman zizkiguten. Atxilotuta, Tolosako kuartel zaharrera eraman gintuzten, eta han berehala hasi zitzaizkigun galderak egiten eta kolpeak ematen. Donostiako komandantziatik beren buruari 'txakurra' deitzen zioten guardia zibil kuadrilla bat etorri zen Tolosara. Guardia zibil haiek torturatzaileak ziren.

Gurpila deitzen zaion teknika egiten hasi zitzaizkidan: muturrekoak, zaplastekoak, ostiakoak... ematen zizkidan batak eta besteak, nire bueltan jarrita. Denbora pasatuta, gauean, Donostiara eraman ninduten. Han jarraitu egin zuten torturak; are gehiago, handienak han jasan nituen. Batez ere, gogorrena izan zen barrabletan ostikoak eman izana. Eskuak lotuta nituen aurrealdean, baina eskuek

traba egiten zietelako eta kolpeak hobeto emateko, atzean lotu zizkidaten. Horrela ari zirela, konortea galdu eta lurtean gelditu nintzen. Hurrengo goizean esnatu nintzen lurrean. Egun hartan galdeketeekin segitu zuten, eta hiru egun pasatuta, Martutenera eraman ninduten, beste lagun batzuekin batera. Haietako bati ere ikaragarriak egin zizkieten: tximetatik heldu eta hatzaparkada ileak zutarretik kendu zioten; burua soilduta utzi zioten.

Orduko gotzain baten iloba zen torturak jasan zituen nire lagun hura, eta apezpiku hark esan zigun gertatutakoa kontatzeko. Martutenen ginela, gertatutakoa azaldu genien hara joan ziren hiru gotzaini. Ondoren, haiek gutun bat kaleratu zuten gertatu zitzaiguna azalduz. Publiko egin zen lehen tortura

|||“Bizitza guztirako ondorio fisikoak eta psikologikoak utzi dizkit torturatu izanak”

JEXUX ARRIZABALAGA

torturatua

salaketa izan zen hura, eta polizia haserretu egin ziren. Laguna eta biok Martutenetik atera eta komisaldegira eman gintuzten; jipoiak jaso genituen. Hala eta guztiz, ni ez nintzen izan torturatu zuten lehen azpeitiarra; adibidez, EGKoa izateagatik izugarriko torturak jasan zituen Andoni Albizurik bost egunez, lehenago.

Hiru hilabete Martutenen pasatuta, kalera atera ginen, eta hilabete baino lehen, ETAK Meliton Manzanas hil zuen. Orduan, salbuespen egoera ezarri zuten Gipuzkoan, eta fitxatuta geunden denok berriz ere Martutenera sartu gintuzten. Handik deserrira eraman gintuzten, eta Kordobako [Espainia] herri batean bost hilabete pasatu ostean, Francoren amnistietako bat tarteko, Azpeitira itzuli nintzen.

Bizitza guztirako ondorio fisikoak eta psikologikoak utzi dizkit torturatu izanak. Iltzatu ta gelditzen dira, betirako. Ondorio fisikoak ere izan ditut, eta ezinezkoa da gertatutakoa ahaztea. Propaganda edukitzeagatik atxilotu eta torturatu gintuzten, baina epaiketa atzeratu eta bere horretan gelditu zen kontua. Zama, ordea, bizitza osorako gelditu zaigu.

Ez da batere erraza torturaz hitz egitea, eta ezagutzen dut torturatu egin zutela aitortu nahi ez duen jendea. Izan ere, gogorra da torturak jasan ostean ahaztea, baita gogorazartea ere. Ez da samurra horrekin bizitzea”.

JOXE RAMON ARRIETA

|||**Jaioturtea.** 1959. urtea. |||**Jaiolekua.** Azpeitia. |||**Tortura mota.** Psikologikoa eta fisikoa. |||**Data:** 1980. eta 1982. urteak.

“Probatu nituen poltsa, baina, muturrekoak...”

“Bi alditan atxilotu ninduten, eta bi aldi horietan jasan nituen torturak, 1980an eta 1982an, hain zuzen. 1980an Espainiako Polizia Nazionalak hartu ninduen atxilo. Azpeitian atxilotu ninduten, eta Gobernu Zibileran eraman ninduten. Zazpi egun igaro nituen

han atxikita, eta tortura fisikoak zein psikologikoak jasan nituen. 1982an atxilotu ninduten bigarrenkoz; orduko hartan, Guardia Zibila etorri zen nire bila. Orduan ere Azpeitian atxilotu ninduten, gurasoen etxean nintzela, goizaldean. Donostiako Antiguoko kuartelera eraman ninduten, eta han ere tratu txar fisikoak eta psikologikoak pairatu nituen. Bi kasuetan libre gelditu nintzen; aurreneko aldian fidantza ordainduta, eta bigarrenkoan epai-leak horrela erabakita.

Sasoi hartan, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako militantea nintzen. Azpeitian jardun politikoa bizi-bizirik zegoen: mugimendu asanblarioa, Laia Ez mugimendua, Gerraundiren sorrera, Komando Autonomo Antikapitalistak... Testuinguru horretan, nik Amnistiaren Aldeko Batzordeetan militatzen nuen, eta han nituen zereginak. Urte haietan indarra zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeak, eta polizien jopuntuan egon ziren denbora luze. Horren ondorioz, asko izan ginen atxilotu gintuzten militanteak. Garai hartan, edozer gauzagarik terrorismoaren aurkako legea ezartzen zuten poliziek, eta atxilotuek zazpi edo bederatzi egun igaro behar izaten zituzten espetxean. Aurreneko lau-bost egunetan egurra ematen zuten poliziek, eta atxilo zeudenek mehatxuak eta denetariko tratu txarrak jasan behar izaten zituzten. Gainerako hiruzpalau egunak torturen ondorioz irekitako zauriak sendatzeko izaten ziren. Dena den, oso esperientzia desberdinak bizi nituen urte batean eta bestean.

Dudarik gabe, 1982koa izan zen gogorre-na. Guardia zibilek begiz jo ninduten, txarrrako. Interesatzen zitzairen informazioa neukala pentsatzen zuten, baina oker zebiltzan. Dena den, nire aurka jo zuten lehenengo unetik, eta izugarritzko tratu txarrak jasan nituen. Orduan probatu nituen bainera, poltsa, muturrekoak, ostikoak...

Bainerarekin hasi ziren ni egurtzen. Urez betetako ontzi batean sartu zuten nire burua hiru lagunen artean, eta nahieran mugitu ninduten, itotzeraino, kasik. Poltsarekin pasatu nuen gaizkien. Poltsaren barruko haizea agortzen joaten zen pixkanaka, eta plastikoa aurpegira itsasten... Oso sentipen txarra zen, itogarria, eta ezinegona eragiten zuena. Beste behin, arropa kendu eta biluzik utzi ninduten; horrek eragiten duen amorrua ezin da adierazi. Ahul zaude polizien aurrean, haien menpeko zara, eta ez dakizu zer etor daitekeen gero, beraien eskuetan baitzaude. Beste tratu txar batzuk ere jasan nituen. Behin, eskuburdinak jarri eta lurrera bota ninduten. Ja-

rraian, barra bat pasatu zidaten hanka tartetik. Ondoren, zintzilik ipini ninduten hanka hutsik. Goma moduko zerbaitekin jotzen zidaten hanketan, eta aurreneko kolpeak jasangarriak baziren ere, denborarekin hankak minberatu egiten zitzaizkidan, eta min izugarria sentitzen nuen. Jasangaitza zen amaierarako. Ziegaren albo batean makurtuta egotera ere derrigortzen ninduten. Horman zegoen burdin batean lotzen zizkidaten eskuak, eta ezin nuen une bakar batez eserita egon. Nekagarria zen, eta hori zen beraien helburua, ni leher eginda uztea. Era askotako kolpeak jasan nituen. Sekula ez dut ahaztuko guardia zibil batek nola egurtzen ninduen: saihetsetan jotzen ninduen beti, etengabe, beti leku berean, behin eta berriz, jarraikortasunez. Azkenerako, fisurak eragin zizkidan saihetsetan. Horrek hainbat kalte utzi zituen nire gorputzean, orain dela gutxira arte begien bista-koak izan diren kalteak.

1982ko atxilo aldia pasarte polit batekin bukatu nuen, eta hori ere ekarri nahi nuke gogora, istorioaren alderik politena horixe baita. Gutxien espero genuenean utzi ninduten libre, eta bakarrik nengoen auzitegian, ez senitartekorik, ez lagunik... Madrilen nengoen, eta ez nuen etxera bueltatzeko autobusa ordaintzeko dirurik. Atotxako geltokira joan eta autobus bat hartzeko ilara batean jarri nintzen, zer egin nezakeen pentsatu bitartean. Bi emakume solasean ari ziren, eta haietako bati euskarazko hitz bat entzun nion. Han joan nintzen bi emakume haiengana, gertatu zitzaidana kontatu eta laguntza eskatzera. Ez ninduten ezagutzen, ez zekiten nor nintzen, espetxean egon nintzela eta torturak jasan nituela besterik ez. Eta hala ere etxera itzultzen lagundu zidaten bi emakume haiek. Hotelera eraman ninduten, eta han garbitzeko eta atontzeko aukera eman zidaten. Hori ez ezik, Euskal Herrira itzultzeko autobuseko txartela erosi zidaten. Tolosakoak ziren bi emakume haiek, eta urte batzuen buruan berriro jarri nintzen harremanetan haiekin. Gero zertxobait gehiago jakin nuen haien inguruan. Ziurrenik ez ziren nire pentsaera be-

||| “Orain, lasai konta ditzaket kontu hauek, baina sekula ez dut ahazten amaiera okerragoa izan zitekeela”

JOXE RAMON ARRIETA
torturatua

||| DATUAK |||||

Aranzadi zientzia elkarteak Azpeitiko Udalaren eskariz egindako *Azpeitia 1960-2017* liburuan jasotako torturaren inguruko datuak dira honako hauek:

97 tortura kasu. 76 azpeitiarrek 97 tortura kasu salatu zituzten 1960. eta 2017. urteen artean.

7 egiletza. 97 tortura kasuetatik 48 Guardia Zibilak eginak dira; 40 Espainiako Polizia Nazionalak; bi Ertzaintzak; bi Brigada Politiko-Sozialak; bat Frantziako Poliziak; bat espetxe funtzionario batek; eta beste lau ez daude zehaztuta.

5.000 tik gora.

Kriminologiaren Euskal Institutuaren arabera, 4.113 tortura kasu salatu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Euskal Memoria fundazioaren arabera, 5.670 Euskal Herrian.

rekoak, baina laguntzeko prest agertu ziren lehen unetik.

Urteak aurrera doazen moduan, gure bizitzak ere aldatzen doaz; etapak itxi eta berriak irekitzen ditugu. Zenbait gauza, ordea, sekula ez dira ahazten. Komunikabideetan-eta torturei lotutako gertakariak bistaratzeko, tortura lehen pertsonan ezagutu nuelako. Horrela-koek erakusten digute gertatutakoa urrun egonagatik, gertu senti daitekeela zenbaite-tan. Gertatutakoa eta bitzitakoa hor dago, buruko nebulosa batean edo. Denborarekin zehaztasunak ahaztu egiten dira, baina kontakti-zuna osatzerakoan, nahi gabe, gogora etortzen dira berriro. Gaur-gaurkoz, torturaz hitz egiteak ez dit logurea kenduko, baina mesede ere ez dit egiten, ez baita erraza bitzitakoa berriro gogora ekartzea. Bi alaba ditut, eta haiekin hitz egin izan dut gaiaz. Jakin egin nahi dute, eta nik beraiek jakin dezaten nahi dut. Horregatik, etengabeko borroka da hau: bitzitakoa ahaztu egin nahi duzu, baina aldi berean, oroitu ere bai, ingurukoei azalpenak emateko.

Orain, lasai konta ditzaket kontu hauek, baina sekula ez dut ahazten amaiera okerragoa izan zitekeela. Izan ere, ezin ahatz deza-kegu torturen ondorioz jende asko hil dela Euskal Herrian”.

UNAI LIZASO

||| **Jaioturtea.** 1975. urtea. ||| **Jaiolekua.** Zestoa. ||| **Tortura mota.** Psikologikoa eta fisikoa. ||| **Data:** 2005. urtea.

“Torturak jasan ostean bizitza aldatzen zaizu”

“Azpeitian bizi nintzen 2005eko otsailean, atxilotu nindutenean. Etxera nindoan goizean goiz; autoa aparkatu nuen, eta giltza kentzerako gainean nituen lau bat lagun. Polizia nazionalak ziren, eta atxilotuta nengoela oihu egiten zidaten. Shock egoeran gelditu nintzen. Mendi aldera eraman ninduten, baina ez dakit ziur nora, burua jaitsita mugitu baininduten lekuz.

Handik Donostiara eraman ninduten, baita auzi medikuarengana ere. Hari esan nion ostiko bat eman zidatela mendian, baina gainerakoan tratua balekoa izan zela. Han gertatutakoaren ordena zehatza ez dakit; izan ere, joera dut gauza txarrak ahazteko. Gela zikin batera eraman ninduten aurrena, eta gero polizia zientifikoarengana. Gero galdeketa egin zidaten, eta ondoren, Azpeitira eraman ninduten, etxea erregistratzen.

Madrilera handik. Lau pertsonarekin egin nuen bidaia. Horietako batek zera esaten zidan: ‘Hitz egiten ez banuen ikusiko nuela’, ‘hobe nuela hitz egitea’... Bidaia oso gogorra izan zen, batez ere, atzeko ilarako erdiko eserlekuan behera begira egin nuelako bide guztia. Eta hitz egiten zidan polizia hark zaplastekoren bat eman zidan ez nuelako txintik esaten.

Festa Madrilan hasi zen. Ez nekien ez nora iritsi nintzen, ez zer ordu zen. Bakar-bakarrrik nengoen, auskalo zer komisaldegitan. Iritsi eta minutu gutxira hasi zen lehen galdeketa. Oroitzen dudanez, eskolako aulki berde bate modukoan jarri ninduten, eta zorua ere berdea zela uste dut. Nire aurrean jarri zen polizia bat, eta autoan hitz egin zidana aldamenean. Galderak egin zizkidaten. Aurrean nuen gizonak usain berezia zuela ere akordatzeko naiz. Segundo batzuetan lurrean nengoen, kolpeak jasotzen, iletik tiraka nituen. Gizon

hura torturatzaile profesionala zen; bazekien nola jo. Lehen galdeketa hura shocka izan zen.

Zeldara eraman ninduten segidan; ez nekien goiza edo gaua zen. Janariarekin kontuz ibiltzeko entzuna nuen, ez nuen jaten. Zarratak entzuten nituen. Herioan nengoen, dardarka. Noiz etorriko ziren beldurrez; izan ere, geroago berriz ere etorriko zirela esan zidaten.

Beste bi galdeketa ere oso markatuta dauzkat. Lehenengo aldiak kolpeak eman zizkidan gizon berarekin izan zen horietako bat. Betiko lau poliziak ziren, eta usain berezia zuen torturatzaile profesionala sartu zen atetik ‘Gabon zoriotsuak’ oihukatzen. Orduan hasi zen dinbi-danba, betiko galderak tarteko. Ezintasunetik, une batean gogor samar erantzun nien poliziei, eta batek barrabiletatik heldu eta beste hirurek gainera saltatu zidaten.

Alderdi emozionalarekin jokatzeko dute, baina hori nahiko ondo eraman nuen. Esan zidaten nire bikotekide zena atxilotuta zegoela, ez dakit nork hitz egin egin zuela... baina banekien joko horretan ezin nuela erori. Poliziek ez jotzeko zer egin nezakeen pentsatzeak sortu zidan eragin psikologiko handiena: istorio bat asmatu nuen denbora irabazteko eta bakean uztea lortzeko, baina alferrikakoa da. Izan ere, denboraren kontrola beraiek dute, eta zurrunbilo batean sartzen zara.

Mediku forentsea eta ofizioko abokatua etorri ziren gero. Biei esan nien jo egin nindutela, burua handi-handi eginda nuela sentitzen nuela eta kaskarreko mina neukala. Mediku hark Gelocatil bat hartzeko esan zidan. Ikaragarria da denak bat eginda nola dauden ikustea, han ez dizute laguntzen inolaz ere. Horregatik eta sartzen duten beldurreratik eta mehatxuengatik, jendea ez da ausartzen ezer esatera; eta hori ere zilegi da, noski.

Hiru egun pasatu nituen Madrilan. Azken kolpe festaren ostean, gehiago ez ninduten jo, baina saiatu ziren mehatxu bidez hondoratzen. Gero, Espainiako Auzitegi Nazionalean eraman ninduten. Egun hartan Jarraila-Haika-Segi auzi saioa egiten ari ziren, eta

||| “Gizon hura torturatzaile profesionala zen; bazekien nola jo. Lehen galdeketa hura shocka izan zen”

UNAI LIZASO

torturatua

haiek ikusteak indarra eman zidan. Gainera, lehen aldiz jan egin nuen, nirekin batera atxilotu zuten eta ezagutu ere egiten ez nuen mutil bat ere han zen... Komunikazioa altxatu zidaten, eta Baltasar Garzonengana eraman ninduten. Zer moduzko tratua jaso nuen galdetu zidan, eta ‘erdizuzena’ erantzun nion. Izan ere, handik alde egitea nahi nuen. Egin zidatena kontatu eta kolpeak ezkutatu arte espeteratzeko aukera hor zegoen.

Aske utzi eta Azpeitira iristen, anbulatiora joan nintzen. Hango medikuak egindako txostena tortura kasu gisa izapidetu zuten buruan eta begi ondoan nituen kolpeengatik, eta gerora Madrilera joan behar izan nuen tortura kasuengatik testigantza ematera. Kasua ezerezean gelditu zen. Epaiketarik ez nuen izan; ez zegoen frogarik, eta bere horretan utzi zuten. Tramitezko deklarazioa egin behar izan nuen Fernando Grande Marlaskaren aurrean, baina hor bukatu zen.

Dena den, oroimenean grabatuta gelditzen dira, ahotsak, usainak... Torturatu osteko lehen hilabeteetan eta urteetan beldurra sentitzen nuen, denera begira ibiltzen nintzen, torturatzaileak non ikusiko. Eta horregatik ezagutu ditut poliziak behin baino gehiagotan.

Gazte mugimenduan militatutakoa nintzen, eta banekien atxilotzea posible zela, baina torturak jasan ostean bizitza aldatzen zaizu. Une askotan beldurra sentitzen duzu, edozer egiteko gai direlako. Denborarekin, egoera normaltzen, nahiz eta une jakin batzuetan gertatutakoa gogoratzen duzun eta dena mugitzen zaizun. Hala eta guztiz, izugarritzko joera dut gauza txarrak edo ez hain onak ahazteko; eta horrek ere lagundu dit aurrera egiten”.*



Pinturak eta Parket Laminatuak 

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

ESKELA ZERBITZUA

Uztartia.eus webgunean eskela jami nahi?

Deitu 943-150030 telefonoa edo bidatu Uztartia.eus webgunean (Pablo VI, plaza 20, bidea)

Lotsa etxean lagata

Mozorroa, kamioia eta umorea; horiek dituzte Astelehen Karnabalerako osagai. Aurtengorako ere ari da prestatzen lagun taldea. 📌👁️ Ihintza Elustondo

Ia-ia lege bilakatu da: sekula ez indiar, cowboy edo txanogorritxu. Dendara joan eta parean tokatutako lehen mozorroa janzea ez zaio oraindik okurritu herriko kuadrilla karnabalezaleenetakoari. Haientzat askoz ere grazia handiagoa du elkarrekin jantzi eta beharrezko detaileak prestatzeak. Mozorrotutako pertsonaiaren ahalik eta antzik handiena izateko, denak balio du: ilea moztu behar bada, moztu; eta makillatu behar bada, makillatu. “Baita besoetako ileak moztu ere”. Bi aukera daude: gauzak simple egitea edo simple ez egitea. Haiek parafernaliaren aldekoak dira. “Horrela askoz ere hobeto pasatzen dira karnabalak”.

Iñaki Arregi (Azpeitia, 1972), Igor Zabala (Azpeitia, 1976), Andoni Aramendi (Azpeitia, 1973) eta Iñigo Karrera (Azpeitia, 1977) dira kuadrilla horretako lau kide. Hasieran, bakoitza bere lagun taldearekin mozorrotzen zen, baina gero elkartu eta denak batera janzten hasi ziren. Guztira, hamabost bat lagunek osatzen dute taldea orain. Duela hamar urte inguru atera ziren lehen aldiz elkarrekin Astelehen Karnabalean. “*Bagitxixin* korrika taldea ideiatzat hartu eta *Ezgitxixin* taldeko kidez mozorrotu ginen”, diote.

Ordutik ideia mordoxka bat gorpuztu ditu kuadrillak: sokaneskaz jantzi ziren urte batean, skinheadez beste batean, gay harrotasunaren desfilea ere egin zuten, Sanagustin kulturguna irudikatu zuten, Ibizako Privilege diskoteka ere bai, punkiz jantzi ziren Erloko gurutzearekin, fatxaz, legioz, igeriketa sinkronizatuko



Iaz Eivissako Privilege irudikatu zuen kuadrilla karnabalerokoak. ■ Alberto Beloki

taldez... Luzea bezain oparoa da zerrenda. Eta badirudi jendeari gustatu zaizkiola ideia horietako asko; izan ere, Azpeitiko Udalak banatu ohi dituen sariak ere poltsikoratu dituzte: Sana gustinez jantzi zirenean lehen saria eskuratu zuten, Privilege irudikatu zutenean hirugarrena eta gay harrotasunaren desfilearekin sari berezia. Sariak ez, baina ospakizuna beti izan da berbera: kuadrillako bazkaria. "Bi urtez Jai Alain egin genuen, eta iaz Zokoa elkartean".

Dena den, "sekula" ez dira saria irabazteko helburuarekin mozorrotu. "Saria lehen aldiz jaso genuenean, ez ginen berehalakoan enteratu. Denok tabernan geunden, eta hantxe esan ziguten sarituak izan ginela", azaldu dute. "Baina gu ez gara-eta inon apuntatu!", bota genien", kontatu du Arregik barrez, sarituak izateko apuntatu beharrik ez zegoela jakin gabe.

Trantsizioa: kamioia

Haien kuadrillan bada mozorroa bera baino garrantzitsuagoa den beste elementu bat: kamioia. "Urte batean, baten bati bonbilla piztu zitzaion, eta zera bota zuen: 'Kamioia lortzeko aukera daukagu'", esan du Zabalak. Ordutik, urtero kamioiarekin ateratzen dira kalera. Eta ez hori bakarrik: kamioiaren arabera erabakitzen dute mozorroa. "Kamioia eta musika izan ditzala", dio Karrerak.

Mozorroa erabakitzeke, "txikiteoan" izaten dute inspiraziorik handiena. Zabalaren arabera, denek izaten dituzte ideiak, baina batzuek besteek baino gehiago: "Letretakoek, batez ere". Batzuek ideiak bota, eta besteek "bale"; halakoren batean erabakitzen dute zertaz jantzi. Hori bai, garrantzitsua da ideia bat aukeratzeko hori muturreraino eramatea: legioz jantzi zirenean, akerra atera zuten kalera; punkiz jantzi zirenean, Erloko gurutzearen erreplika ere beraiekin atera zuten (urte hartan desageratu zen gurutzea); beste batean, kaskamotz atera ziren... Zabalak airera bota du galdera: "Karnabalengatik denak merezi du, ezta?". Arregik zalantzarik ez du: "Uste dut baietz".

Behin mozorroaren ideia erabakita eta kamioia eskuratuta, lanak banatzea tokatzen da: batzuek jantziak inguratu, besteek kamioirako beharrezko gauzak lortu... Eta hori bai, Txikiteo Elegante egunaren bezperan, larunbatez, juntadizoa egiten dute Arregiren familiako taile-rran, kamioia prestatzeko. Aurrez prest izaten dute beharrezko material guztia, eta egun horretan egiten dute muntaia. "Batzuek ez dute ezer egiten, baina han egon behar da, kafea hartzen baldin bada ere; hori da araua", azaldu du Arregik. Igeltsero batena da kamioia, eta hark ezin izaten du karnabalak baino lehenago



Ezkerretik eskuinera, Zabala, Arregi, Karrera eta Aramendi.

libratu ibilgailua; horregatik elkartzen dira urtero festen aurreko larunbatean. "Goizean elkartu eta bukatu arte aritzen gara tailerrean lanean", esan du Karrerak.

Egun handia iristen denean, 16:00 aldera elkartzen dira, "zezena irteten denean edo". Arratsaldean hartzen dute kamioia, 18:30 inguruan, eta kalean ibiltzen dira mozorrotuta, afaltzera joan arte. "Kioskoari buelta batzuk eman, Erdikalean inozoarena egin... ederra izaten da", dio Zabalak. 21:30 aldera-edo afaltzera joaten dira, eta ordurak kamioia hustu eta igeltseroari bueltatzen diote. "Kostatzen zaigu kamioia uztea. Askotan esaten dugu: 'Beste buelta bat emango diogu kioskoari!'. Horrelaxe ibiltzen gara, gustura", kontatu du Karrerak. Afalostean, kamioirik ez da izaten, baina berdin jarraitzen du festak.

Urteko egunik onenak

Hainbeste urteko entretenimendu festan, anekdotaren bat edo beste ere badute kontatzeko. Badira urte batzuk kamioiarekin irteten direla, baina urtero neurtu behar izaten dute Erdikalea, kamioia kabitzen dela ziurtatzeko. "Errazago litzateke paper batean apuntatzea, baina...", bota du Karrerak. Ile guztia moztu zutenean ere, ederrak entzun behar izan zituen hark: "Bi hilabete pasatuta, ez zela ile hori hazten eta... 'Adin batetik aurrera, hori ez duk hazten', esaten zidaten".

Aurten, zer? Hori da galdera. Karnabalak iristear dira, eta ideien bat badarabilte buruan, baina ez dute ezer aurreratu nahi izan. "Katxondeoan esaten dugu: 'Urteren batean jantzi beharko diagu ba bakoitzak nahi duen bezala?'", dio Karrerak. "Iritsiko da eguna, kamioia puskatzen dugunean edo...", erantzun dio Arregik. Hark eman ditu mozorroaren ingu-

ruko pista batzuk. "Ni beti neskaz jantzen naiz. Niretzako mutil batek neskaz jantzi behar du karnabalean. Uste dut sekula ez naizela jantzi mutilez. Tanga gorri bat erosi nuen behin, eta beti jantzen dut hori".

Duela urte batzuk indarra galduta egon zen Azpeitian Astelehen Karnabala, kuadrillak oroitzen duenez. Baina orain, berriro indarra hartzen ari dela uste dute, eta pozgarria iruditzen zaie hori. "Orain, gazte mordo bat ateratzen da eguerditik, eta giro ederra egoten da kalean. Gainera, goizetik ateratzen diren familiek ere sekulako indarra eman diote egunari. Gure garaian, afalorduan mozorrotzen zen jendea", gogoratu du Aramendik.

Haien kuadrilla, familia ugari eta hainbat norbanako Astelehen Karnabalerako prestatzen ari dira dagoeneko. Arregik aholku bat eman die herritarrei egun horretarako: "Lotsa etxean laga behar da". Berak argi dio: "Nik ez daukat lotsarik. Niri plazan jende mordo baten aurrean dantza egiteak ez dit inporta. Egun horretan ezerk ez du axola".

Karnabalak: urteko egunik onenak. Halaxe dira herritar askorentzat, baita Arregi, Zabala, Aramendi eta Karreraren kuadrillarentzat ere. "Barre mordo bat egiten dugu", diote. Eta ez egunean bakarrik, lanak lan, prestaketa guztian zehar ere umorerik ez da falta izaten haien lagun taldean. Hilabete inguruko entretenimendua sortzen da karnabalen aitzakian, "sansebastianetatik karnabalelara".

Batzuentzat karnabalean mundua gelditzen da. Arregiri ere antzeko zerbait gertatzen zaio. Hainbeste gustatzen zaizkio herriko festa horiek, urtero eskertzen dio amari Azpeitian jaiotzeko aukera eman izana. Hauxe urtero errepikatzen duen esaldia: "Ama, eskerrik asko Azpeitian jaiotzeagatik" ✨

Gregorio (eta II)

Eta Bilbon zegoela, anaiak eskatuta etxera itzuli zen, gurasoak zaintzeko ardura hartuta. Bizitzari aurre egiteko, Azpeitian ingelesa, frantsesa eta latina ematen hasi zen. Eta horrela, hogeitaz urtez.

– Hizkuntzak irakasten ez ezik, beste egin-kizunetan ere aritu zinen, ezta?

– Bai, interprete lanetan. Horri esker, lurralde berriak ezagutu nituen. Besteak beste, Jordania. Jo, zer-nolako hotelak zapaldu nituen! Eta Nuarbeko sokatira taldearekin... A ze oroitzapenak... Hogeitaka tirada egin ondoren, tiralariak lur hezean etzanda, hurrengo tiradaren zain, akituta. Bitartean holandarrak oheskan, neska gaztea tiralarien ipurdi gainetan jarrita masajea ematen... Zuek orduan berri samarrak ofizioan, kar, kar, kar. A, eta grafologo lanetan ere aritu nintzen bai. Epai-keta batean edo bestean izan nintzen, idatzi anonimoak argitzen.

Eta hogeita piku urte pasatu ondoren, 1996an, Palentziara itzuli, berriro fraide bihurtzeko! “Bai, neure burua ez nuen ondo ikusten. Bizitza desordenatua neraman. Etxean afari arina egin eta tabernara. Han lagunak zain jokorako. Edaten hasteko, gai nintzen berriro afaltzeko. Jokoa egin, eta goizeko ordubata aldera: ‘Ze, orain etxera?’. Eta Zumaiara, ordu txikitik itzultzeko. Mendingo ibiltzeko ezina, kristoren pisua nuelako. Anali-siak egin eta kolesterola lainoetan. ‘*Tiene que cerrar la boquita, Gregorio*’, sendagileak”.

Datu bitxia: bera fraideetatik irten zen garai beretsuan, hogeiren bat irten omen ziren, eta bera bakarrik itzuli. “Klaro, belarriak jaistea asko kostatzen zaigulako. Umiltasuna falta zaigu horrelakoetan”. Eta gehitzen dit: “Zer uste, banandutako asko ez lirakeela atzera bikote berarekin elkartuko?”. Berriro fraide izateko ez zioten, ordea, erraztu ezertxo; oztopo ugari inposatu, bai. “Fraideek informe ‘onak’ zituzten nire ‘ateo bizitzaz’, eta bazekiten nola Erromak bidali ninduen infernura;



||||||| Luis gurrutxaga |||||

||| La Olivan, 2004an, amesten zuen fraide abitua jantzi zuen berriro. Egun, bertan jarraitzen du



baina Angolan eta beste lekuetan egin nituen lanez, tutik ez”, dio suharki.

Palentzia utzi gogaituta, eta La Olivan, 2004an, amesten zuen fraide abitua jantzi zuen berriro. Egun, bertan jarraitzen du. Hiru urtez bidali zuten Bizkaiko Ziortza monasteriora. Han, Done Jakueko bidean, fraideek aterpetxea dute, eta Gregoriok hizkuntzak menperatzen dituzenez, aproposa zen erromesak artatzeko. 44 naziotako jendea igaro omen zen aterpetxetik kargudun egon zen bitartean.

Aktore ere bai

Dituen buru argitasuna eta oroimenerako gaitasuna harrigarriak egiten zaizkit. Zazpi hizkuntzatan meza emana du. Erdi Aroko monasterioetako bizitzaz eta errealtateaz berriki hitzaldiak eman dizkie erlijiozaleei, eta mahats biltzen aritu diren langileei ardoak dituen propietateez eta onurez. Zehaztapen guztiekin azalpenak emango dizkizu elizako sarre-rako frisoaz, eta harginek hormetan marraztutako ikurren esanahia argitu; edo azaldu Angolan nola sendatzen zituen *riquetzia* izeneko gaixotasuna zuten txahalak. Gregoriar kantuan espezializatua, 40 urte organoa jotzeke egon arren, egun bera da monasterio-ko organo-jotzailea. Eta gosalduek ondoren laneko arropak jantzi eta baratzerara edo lorategira joango da, edo monasterioak duen dendara. Beno, aktore ere aritu da Gregorio: Loiolako Inazioaren rolean, duela hiruroi urte pasatxo egindako filipinar filmean, *Ignacio de Loyolan*.

Mila esker, zure unibertso zabalean eta sakonean hegan egiten uzteagatik, eta gogoratu Einsteinen aholkua: ‘paraxuta’ etenik gabe zabaldua eduki, Gregorio. Oiaun baserriko Gregorio.✱

LA GUIPUZCOANA

Urolan barrena, aukerarik onena!
Bidaiak, irteerak, ibilaldiak egiteko zerbitzua
NAHIERAN!



Ugarte Industrialdea 54 - 20720 Azkoitia (Gipuzkoa) - Tel.: 943 85 11 59 - info@laguipuzcoana.eus - www.laguipuzcoana.eus

 La Guipuzcoana -  @LaGuipuzcoana



3dk
irudika
arkitektura estudioa

Pérez Añegi Enparantza, 6 zk beheak
CP. 20.730 Azpeitia
M. 627 621 221
irudika@ymail.com
www.3dkirudika.com

Ikuskizuna, estreinatzeaz

Alejop! izeneko ikuskizuna sortu du Ekain Iburgunek, eta labetik ateratzear da. Ekain Txouren azalean sartuta, Azpeitian eskainiko du ikuskizuna estreinakoz, otsailaren 15ean. 🍷 Maialen Etxaniz

Ekain Iburguren ez da geldirik egotekoa, eta jakinekoa da hori. Gure Zirkularekin Euskal Herria zeharkatu ostean, Ekain Txouren azalean jarriko da berriro, ikusleei emanaldi berri bat eskaintzeko. Izan ere, azken hilabeteetan *Alejop!* ikuskizuna sortzen eta prestatzen aritu da artista azpeitiarra. Otsailaren 15ean, larunbatez, estreinatuko du ondutako azken lana, Soreasu antzokian, 17:00etan hasita.

5 urtetik gorako edozein pertsonari zuzendutako ikuskizuna da *Alejop!*, eta horregatik, adin guztietako herritarrak, haur, gazte zein heldu, emanaldira joatera animatu nahi ditu azpeitiarrak. Eta horiei guztiei mesede bat eskatu die: emanaldian zehar zorroko goxokirik ez jateko.

Iburgunek aurreratu duenez, "betiko" osagaiekin sortutako lana da *Alejop!*. Beraz, musika, malabareak, umorea eta herritarren parte hartzea ez dira faltako emanaldian zehar. Ekain Txouren abentura berriak ezagutzera animatzen diren lagunek, esketx laburrez jositako eta umorez jantzitako ikuskizunaz gozatzeko parada izango dute.

Sarrerak, eskuragarri

Dagoeneko eskuragarri daude *Alejop!* ikuskizunerako sarrerak.

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** 'Alejop!' ikuskizuna.
||| **Eguna.** Otsailak 15, larunbata. ||| **Ordua.** 17:00.
||| **Tokia.** Soreasu antzokia.
||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

Sei eurotan jarri dituzte salgai Iburgunek sortutako ikuskizunerako txartelak, eta Sanagustin kulturagunean nahiz *Kulturaz.eus* webgunean eros daitezke.

Kultur Bonoa duten herritarrek bonoa erabili ahalko dute *Alejop!* ikuskizunaren emanaldirako.

Aurrez saldu gabeko sarrerarik geldituko balitz, emanaldiaren egunean Soreasuko leihatilan jarriko dituzte salgai.*

||| UMOREZ BETETAKO IKUSKIZUNA |||||

6 euroan. Dagoeneko eskuragarri daude *Alejop!* ikuskizunerako sarrerak Sanagustin kulturagunean eta 'Kulturaz.eus' webgunean.*



'Alejop!' ikuskizunaren afixa. ||| Iban Izagirre

||| BESTERIK |||||

1 Dokumentala eta solasaldia.

Zauria(k) ikus-entzunezkoak eromena, gaizkiegona eta osasun mentala lantzen ditu ikuspegi feminista batetik. Maier Irigoien eta Iker Oiz ariko dira hizlari.

||| **Eguna.** Otsailak 13, ostirala.

||| **Ordua.** 18:30 ||| **Tokia.**

Emakumeen Txokoa.

||| **Antolatzailea.** Azpeitiko Emakumeen Mahaia.

2 Mozorroak egiteko tailerra.

6 urtetik 12 urteko haurrei eta beren familiei zuzenduta, mozorroak sortzeko tailerra eskainiko dute, doan.

||| **Eguna.** Otsailak 16, igandea.

||| **Ordua.** 11:00 ||| **Tokia.**

Ekoetxea. ||| **Antolatzailea.**

Azpeitiko Ekoetxea.

3 Bidean, kontzertuan.

Xabier Zabalaren, Garikoitz Mendizabalen eta Kaabestiren proiektua da *Bidean*.

||| **Eguna.** Otsailak 16, igandea.

||| **Ordua.** 18:30 ||| **Tokia.**

Soreasu antzokia.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz

kooperatiba.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA Instalakuntza Elektrikoak
argi lanak s.l.
Urko: 618 96 49 95 / Jori: 649 12 02 71
ikaergilanak@gmail.com www.ikastistemak.com
20730 AZPEITIA

Zure autoak beti daude aldatzen
FX AIZPURU AUTOAK
PIZZERIA TELEBIA
Tel: 943 81 22 89 aizpuru@aizpuru.net
Fax: 943 81 22 81 www.aizpuru.net
Arretxo 17, 20730 AZPEITIA

Datozenak




Zinema



+ ERAKUSKETAK, HITZALDIAK, SORMEN EGONALDIAK, TAILERRAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK...

HITZ GEZIDUNAK

	Izena		Momentua		Eskekoa		Bordeleko ibala		Pisu unitate
	Añanako herritarrak		Lasterka bizian		Artsenikoa		Detekta-gailua		
	Kantari								
	Gabeziak								
Diru truk eskuratuak		Eguzkia			Zainetako isurkari				
Europako estatua		Deitura			Bokala				
					Donostiako pilotalekua				
					Bokal birbila				
Burdinola			Musika nota		Modua				Enakume izena
Uso haragia			Trebe, abil		Janari ongailu				
					Su bizi			Potasioa	
					Deialdi			Memoria unitate	
Iridioa			Arabako kontzejua			Garai, aldi			
Sei eta bat			Platinoa			Mina adierazteko			
					Junta-gailua			Ez eme	
					50			Sufrea	
Erlijio katoliko									

Egilea: Luma

* Esatari azpeitiarra

SUDOKUA

6								1
		4				6		
			5			3	7	
	2			4		8		7
			6					
1				7	5	4	2	
3			9		1		5	
	9		7					
					6	1	8	



ETXERA ERAMANGO DELIGU

Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Bide jakin batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharrekoak. 2. Apaltzera behartua. 3. .Azpeitia, Azkoitia eta Zumarragako mendia (933 m.). Potasioa balio du. Kontsonantea. 4. Txakurra. Barazkiak ontzeko isurkari mingotsa. 5. Mila, zenbaki erromatarren arabera. Sumendiaren aho. Kontsonantea. 6. Uztaila ororen hasieran. Bokal biribila. Aldia, aroa. 7. Aditua da teologian. Noren atzizkia. 8. Landare mota. Trebea. 9. Egiteko. Orpo. 10. Aranondoan fruituak. 2019an.

Goitik behera

1. Basolanean jarduten duen langilea. 2. Iparralde. Barna, barrena. 3. Emakume dotoreak. Zangoaren zatia. 4. Ipar Euskal Herrian, abere talde. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzezten duen zatia. Nitrogenoa balio du. 5. Azpeitiko mendia (616 m.). 6. Oxigenoaren ikur kimikoa. Herri hizkeran, eta. 7. Antzinako Egiptoko jainkoa. Benetakoak, erabatekoak. 8. Itsas oskoldun txikia, itxuraz otarrainxkaren antzekoa eta jateko ona dena. Elektroiti bat edo batzuk galdu dituen atomo. 9. Mina adierazteko. Nitrogenoa balio du.. Xakeko pieza. 10. Kataluniakoa. Kontsonantea.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3							■		■	
4				■						
5		■							■	
6			■		■					
7								■		
8					■					
9				■						■
10							■			

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Otsailak 24 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Soreasuko Sormen Gunea, 1. solairua (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com-epostara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

O	M	S	I	Z	I	L	O	L	V	K	●
R	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
O	R	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
K	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
O	N	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
L	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
I	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
K	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

SUDOKUA

6	9	7	5	4	3	6	1	8	9
3	9	7	5	8	2	6	3	4	1
4	3	6	8	9	2	1	7	5	4
1	3	9	8	7	5	4	2	6	3
8	4	7	6	1	2	9	3	5	4
5	2	6	3	4	9	8	1	7	5
9	1	2	5	6	4	3	7	8	9
7	5	4	1	8	3	6	9	2	5
6	8	3	2	9	7	5	4	1	8

|||UZTARRIAREN URTARRILEKO LEHIAKETA|||

IRABAZLEA



Ainhoa Badiola
 Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 223. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA

Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA



Seinajoki

Gizentasuna da, gaur egun, osasun publikoaren arazo handienetako bat mundu osoan. Europako iparraldeko herrialdeak beti izan dira aitzindariak epidemia horri aurre egiten, eta horren adibide dugu Finlandiako Seinajoki hiria.

Duela bederatzita urte, programa pilotu bat jarri zuten martxan han, haurrei zein helduei eragiten zien gizentasun-epidemia geldiarazteko. Bost urte ondoren, gizentasun maila erdira jaitsi zen hirian.

Programa harekin, osasuna funtsezko irizpide bilakatu zuten edozein erabaki politiko hartzerakoan. Horrela, jarduera fisikoa gehiago sustatzeko, hiri-gintza plangintza hobetu eta eskoletako jolastokiak aldatu zituzten; eskoletako menuak berrikusi eta aukera osasungarriagoen alde egin zuten; gurasoei zuzendutako hezkuntza kanpainak egin zituzten, kontzientzia pizteko eta balibideak emateko; haurrei zuzendutako elikagaien publizitatea arautu zuten; nutrizioaren ikuspegitik interesik ez duten produktuei (gozoak, txokolateak, freskagarriak, izozkiak, litxarreriak...) tasa altuenak ezarri zizkieten; nutrizio, osasun eta sukaldaritzaren edukiak ematen hasi ziren eskolatan.

Badugu non begiratu eta non ikasi. Eta Azpeitia Seinajoki bihurtuko bagenu?*



BELEN SAGASTUME albaitaria



1. Txakurrak ala katuak?

Lehen, txakurrak askoz gehiago. Orain, ia erdi eta erdi ikusten ditugu.

2. Etxeko animaliak ondo zainduta daude?

Bai, ekartzen dizkigutenak, bai.

3. Landa eremuan ala kalean hobeto?

Katuak, ohituren arabera. Txakurrak, arrazaren arabera.

4. Gaitzik ohikoena?

Gastroenteritisa.

5. Eta arraroena?

Mediterraneo aldeko

zenbait gaixotasun hemen ere hasi gara ikusten.

6. Animalia/jabe harremana asko aldatu al da?

Lehen, funtzio bat betetzen zuten animalia gehienek.

Gaur egun, etxeok dira.*

✉ Mailo Oiarzabal

aitziber aizpuru

IRENE ALTUNA
ORAZENDI
Loiola-Bida, 26 Tel. 943 81 51 87
www.aitziber.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 10 40
Ekain
Larmeloiak
943 15 10 40
ALBAITARI KLINIKA

Alar
merzeria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Iñaki Oñdo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

uba
Kohakulerritik
Itxarola
Labeola
Santabakoa
Gastari Janak
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliaria
Tel. 943 151 228 Faxa: 943 151 272
Loiola, Kalea, 41 • Tel. 943 81 51 87

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
● **Talla** 18:30 - 20:00

Koh Tao
OSAEARRIAK +
PIERZING ESTUDIOLA
Jose de Arretxe, 14 - 20730 Azpeitia • 943 776 736

uba
Kohakulerritik
Itxarola
Labeola
Santabakoa
Gastari Janak
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliaria
Tel. 943 151 228 Faxa: 943 151 272
Loiola, Kalea, 41 • Tel. 943 81 51 87

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
● **Talla** 18:30 - 20:00
Jose Arretxe kalea, 3
943 81 28 08
ar@adibizkaia.com
Matrikula urte osoan zabalik

Gutxirekin nahiko

Lagunarteak, kaleko bizitzak, kirola jarraitzeak, inguruko parajeez eta altxorrez gozatzeak.

Horrelakoek asetzen dute Mikel Sanjuan. 📌 Mailo Oiarzabal

Ez dut gauza asko behar ondo pasatzeko”, dio Mikel Sanjuaneke (Azpeitia, 1968), bere zaletasunak eta bizitzaz gozatzeko behar dituen osagaiak urrutira joan gabe eta gehiegi konplikatu gabe aurkitzen dituela adierazteko. Lanerako, bai, horretarako traste dezente behar ditu eta dauka Paulo VI.a auzoko tailerrean. Hantxe, txikitatik gaurdaino orduak eta orduak eman dituen tokian, hartu du Uztarrria.

Datorren udan beteko dira 50 urte aita Manolok orain Mikelena den Paulo VI.eko lantokia ireki zuenetik. Bera umea zela, “auzo osoa” tailer horretan ibiltzen zela kontatu du Mikel Sanjuaneke, bera eta lagunak tartean, “kaniketari, jolasean”. Handik gertu, Betharramdarren ikastetxean, igaro zituen eskola urte gehienak Sanjuaneke. Handik orduko Iraurgi ikastetxera joan zen, Batxilergo ikasketak egitera; baina 17-18 urterekin ikasketak uztea erabaki zuen, Batxilergoa osatu aurretik. “Eskolan, abilagoa nintzen arte ederrekin lotutako gaietan. Estudiatzen ez nintzen oso egokia, ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Azkenean, ondoen menperatzen dituzun gaietarako joera hartzen duzu, eta marrazten eta eskulanetan errazago ibiltzen nintzen ni”, azaldu du.

Ikasketak uztearekin batera hasi zen aita-rekin lanean, taillaketan. “Lan honetan nahikoa konplikatu izaten da, baina tokatu egin zen lan erraz bat parea, hasteko moduan



eta diru bat ateratzeko aukera ematen zuena; gaur egun ez dagoen lan klase bat, serieko lan bat, errepikatzen dena”. 18 urteren muga hasi zuen Sanjuaneke gaur arte luzatu den ibilbide profesionala, baina ezin esan taillan hasiberri-hasiberria zenik ere. “Tailla etxetik jaso dudana herentzia da, noski. 17 urterekin eta ezerezetik zaila da taillan hastea. Betitik gustatu izan zait taillaketa, eta ordurako aritzen nintzen, baina ikasketekin batera”.

Oso gustuko jarduera izan arren, aitortzen du nerabezaroan bizi izan zuela taillarengandik halako urruntze bat. “Inor ez da ikasita jaiotzen, eta taillan ikasketa prozesua pixka bat errepikakorra izaten da eta kostatu egiten da. Nerabezaroko urte haietan gutxiago erakartzen ninduen; garai hartan saskibaloiak, pilotak eta beste gauza batzuek gehiago betetzen ninduten. Hala ere, beti taillaren bueltan. Eta 17 urtetik aurrera, gaur arte, beti hemen. Bizi osoa hemen, auzoan eta taillerrean”.

Kirolzalea ere betitik izan da Sanjuan, eta izaten jarraitzen du. Gaztetan, “kirol dezente” egiten zuen. Saskibaloian jokatu zuen eta erremontean ere bai, nahiz eta pilotari profesionala izatera iritsi ez. “Nirekin jokatzeko zuten guztiak pasatu ziren [profesionalerara]. Beraz, txarra izango nintzen benetan edo, ez dakit! Neure ustez ez nintzen hain txarra, baino... Nire garaikoak ziren Ezkurra eta horiek”, kontatu du, umoretsu. Gaur egun, belauneko arazoak tarteko, kirolik ez du egiten; baina kirolak jarraitu eta ikusi, “asko”.

Bidaiatzea eta abioiak...

Herriko eta kaleko bizitza eta txikiteoa ere maite ditu taillugile azpeitiarrak. “Gure etxean tradizioa da hori, aitarengandik jasoa”, dio, txikiteoaz.

“Oso herrikoa” dela dio bere buruaz: “Zu-maia ere asko gustatzen zait, baina Azpeitian



1. Mikel Sanjuan semearekin, helduen danborradan, Izarraitz Txoko soziedadeko taldeko jantziekin. **2.** Manolo Sanjuan lanean eta Mikel semea, oso gazte, aitari begira, Paulo VI.eko tailerrean. **3.** Mikel Sanjuan gaur egun, bere lantokian.

ikusiko naute gehienetan. Oso azpeitiarra naiz, horretan behintzat. Gehiegi, igoal!". Bidaiatzeko bere zaletasun ezarekin lotu ditu aurretik esandakoak: "Ez dakit nola esan. Jendeak asko bidaiatzen du gaur egun, baina niri... Telebistako lehiaketetan, lehiakideei saria irabaziz gero zer egingo luketen galde-tzean, lehen mundu guztiak esaten zuen etxea ordaintzeko erabiliko zukeela dirua; orain, berriz, ia inork ez du aipatzen etxea ordaintzearena, denek esaten dute bidaiatzeko dutela dirua".

Bidaiatzeaz ari dela, egonaldi luzeaz edota

atzerriko irteerez ari da Sanjuan. Izan ere, egun pasak eta asteburu pasak oso gustuko ditu, urrutira joan gabe, beti ere. "Bilbora, Logroñora edota Lruñera joan eta ezagutzen ez zenituen tokiak ikustea, horrelakoak bai. Baina hamabost egun edo astebeteko irteerak, edo atzerrira joatea... horiek ez, nahiago hementxe". Bidaiatzeak eragiten dion nagiak badu zerikusia, neurri batean behintzat, abioiek eragiten dioten atzerakoarekin. "Ez naiz abioizalea. Abio batean sartzen naizen aldiro zerbait gertatzen da; horretan banaiz pixka bat superstiziosoa. Lagunek esaten di-

date artisen berexkeria antzematen zaidala horrelakoetan. Hala esaten diet nik: 'Zuek asko bidaiatzen duzue, nik gutxi. Zuei ez zai-zue ezer pasatzen, baina nirekin joan, eta...!'. Azkena, ez da urtebete ere, eta gauza arrarorak pasatu ziren orduan ere", kontatu du, hegazkinean ibiltzeak eragiten dion egonezina azaltzeko.

Badaki egonezin horrek, besteak beste, "oporrak baldintzatzen" dizkiola, "gertu edo kotxean" joateko moduko tokiak aukeratu behar dituelako. Baina badaki, ordea, gertu eta eskura dituen aberastasunak baloratzen, eta ez dauka aspertzeko beldurrik. "Monumentuak eta ikustea gustatzen zait, baina bertan dauzkagu pila bat, ikusten ez ditugunak eta ezagutzen ez ditugunak", dio.

Aldaketak, denean

Zumaiara edo Donostiara egun pasa joatea, bazterrak edota dendak ikustea, eta etxekoe-kin eta lagunekin "bazkari on bat" egitea izan daiteke Sanjuantzat plan borobila.

Moda eta altzari dendak gustuko ditu, esaterako. "Arropak betitik gustatu" zaizkiola dio, eta garai batean Donostian edo Bilbon dendaz denda ibili zalea zela. "Gaur egun edozei- nek ikusi eta ez luke halakorik pentsatuko nitaz, agian, baina horrela da. Orain, erosketak egitera joan eta seme-alabentzako zerbait erosita itzultzea izaten da normalena. Lehen- tasan aldatu egiten dira, izan ere". Dena den, nabarmendu du garai bateko saltoki eta denda aukerak ez duela zerikusirik gaur egungoarekin: "Lehen, Donostiara joa- ten zinen eta denda aukera zabala zenuen; orain, herri guztietan pasatzen ari den bezala, denda txikiak dauden bezala daude, eta denda handiek dena bete dute. Lehen, Bil- bon eta Donostian joera edota estilo desber- dinetako dendak zenituen; gaur egun, ordea, denda kate berberak dituzu bazter guztie- tan".

Arlo horretan ez ezik, bere lanbidean ere sumatu ditu aldaketak Sanjuanez urteen joa- narekin. "Jendeak gauza desberdinak nahi eta eskatzen ditu, eta ez dago erraza asma- tzen. Gauza diferenteak nahi ditugu, eta gai- nera, ekonomikoki ondo neurtutakoak, eta hori da zailena: zuk horrelako lan batean sar- tzen dituzun ordu guztiak ezin dituzu kobratu, baina hala ere, ordaindu behar duenarentzat beti da asko. Hor dago arazoa", laburbildu du. Hala ere, lana gustura egin eta emaitza erakusterakoan "bezeroek zer aurpegi jar- tzen duten ikustea" bada saria tailugilearen- tzat. "Baloratuta sentitzen naiz", dio.*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (OTSAILA)

1-2-7-10-17-24
Aranburu (Azpeitia).
943-81 13 50

5-12-19-26-29
Jacome (Azpeitia).
943-08 02 58

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 26an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



SORMENERAKO GUNEA.

Igerilekuko sarreraren ondoko egongela erakusketak jartzeko gune gisa egokitu du udalak. Bertan lanak ikusgai jarri nahi dituen lagunek igerilekuko sarreran egin beharko dute horretarako eskaera.

4-11-15-16-21-25
Alberdi (Azpeitia).
943-81 59 74

GAUEZ, URTE OSOAN
Aranburu (Azpeitia).
943-81 13 50

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

OLATZ AGUADO

Sortzailea

“ sortzeko garaian motibatu egiten nau kaleak ”

Berezkoa du sortzea. Kalekoa, egunerokoa, da sarri bere burua martxan jarrarazten diona. Gauzak adieraztea du gogoko; modu onean, umorez. 📌 Nerea Uranga

Gizarte hezitzailea zara lanbidez, baina sortzailea izatez.

Halaberrez, hala da. Azkenean, sortzeak ez dauka ez soldata bat hil bukaeran, ez egonkortasunik. Bestela, agian, sormena izango nukeen lanbide. Ez diot inoiz utzi sortzeari; behar bat da sortzea. Egungo lanean ere sormena eta umorea barra-barra erabiltzen ditut, ez pentsa!

Aurreneko ikasketak ere sorkuntzatik bideratu zenituen?

Hori ere halaberrez. Ez nintzen oso ikasle fina, eta Batxilergo Artistikoak motibatu egingo ninduela pentsatu genuen. Hala, 16 urterekin Soriara joan nintzen ikastera; gustura. Bueltan diseinu grafikoko masterra eta argazkilaritzako goi mailako modulua egin nituen. Argazkilari gisa, *Euskaldunon Egunkarian* kolaborazio batzuk egin nituen eta Boliviara boluntario joateko aukera ere izan nuen. Gero, urte askoan, diseinu grafikoko lanak egin eta marrazkiak saltzen ibili naiz. 41 urterekin, berriz, Gizarte Integrazioa ikasi nuen.

Analogikoan lehen, orain digitalean.

Ikasle garaian, analogikoan lane egiten asko

gozatu nuen, errebelatzen eta. Orain, sakelako telefonoarekin heldu diot berriro argazkilaritari, eta oso gustura nabil.

Kaleko irudiak zure lanean asko ikusten dira. Kalea al duzu inspirazio?

Ez naiz barruko landarea, kanpoko landarea baizik; denerako. Oraingo lana ere oso kalekoa dut. Motibatu egiten nau kaleak. Pasieretan, neure burbuilan, sortzen ditut lanak, eta gero hori partekatzeak poz ematen dit.

Sare sozialez zer diozu?

Horiek ere aurkikuntza ederra izan dira. Zirikatzailea ere banaiz. Oso ondo pasatzen dut nire lanak Instagramera-eta igotzen. Gauzei buelta erdi bat ematea dut gustuko, baina umorez. Gauzak umorearekin esanda hobeto ulertzen dira. Egiten dudan hori modu onean adierazten eta azaltzen saiatzen naiz.

Petopetue marka ere sortuta duzu.

Orain dela bi urte Sormen Beketatik jasotako dirulaguntzarekin sortu nuen. Azpeitiko esae-rekin eta hitz jokoekin zein nire marrazkiekin egindako opari produktuak dira. Proiektuak biziraun zezan, lankide batekin *online* denda ireki nuen, eta tirriki-tarraka aurrera doa.*



1

1. 16 urterekin, Sorian (Espainia), Batxiler Artistikoa ikasi zuen garaian. 2. Petopetue egitasmoa aurkezteko erakusketa, 2017.ean. 3. Iazko Gabonetan Zelai Luzeko erakusketa kolektiboan erakutsi zituen lan batzuk.



2



3

Bagdadekoarena Azpeitian

B

azen behin, Gasteizko hirian, bere buruarentzat ez beste inorentzat lan egiten zuen mutil izandako gizonfardel bat. Egun batez, goizean goizik, etxetik irten eta Azpeitira abiatu zen, Kanpaxa, Inaxio Mari Olarte, Mertxe Urrestilla Lapatxenekoa eta beste zenbait perla elkarrizketatzera, horixe baitzuen lanbide eta ofizio mutil izandako fardel hark: honi eta hari galderak egin, erantzunak grabagailuan bildu, etxera itzuli eta hitz haiek paperean jarri; ondoren, gatz pixka bat eman eta publikatzen zituen.

Horrela, Azpeitira ailegatu zen goiz hartan. Autoz joan zen Gasteiztik Azpeitira, lau erroberakoa astotegian uzten saiatu zen, alferrik, dena beteta baitzegoen, garai batean astoz bezala, autoz orain. Orduan, Zelai Luzen behera jo zuen, Enparan dorreraino. Harako Posadas hura hil zuten parajeari begiratu, beti egiten zuen moduan, Arrutinek etxeko paretan ageri ziren bala-zuloak ikusten saiatu, Arauntza elkarteari ere begiratu, eta Eroskin aparkatzea lortu zuen, parkingean gora igota. Orduan, Errabalera, Zentenario aldera nahi izan zuen, gaztetan behin eta berriz eta askotan egin izan zuen moduan.

Baina goiz hura ordura artekoak ez bezalakoak izan zitzaion, goiz hartan gizonfardelak Herio ikusi zuelako Enparango zubian, juxtu-juxtu berak pasatu behar zuen lekuan! Eta Kanpaxari, Inaxio Mari Olarteri eta Mertxe Lapatxenekoari egin behar zizkien galderak buruan bor-bor zebilzkiola, larri konturatu zen Heriok keinu egin ziola. Gizonfardelari ondoeza egin zitzaion Herio Enparango zubian ikusita, eta, beldurra airean, gizonfardelak ipurdiz aldatu egin eta Joanes XXIII kalera jo zuen, Iñaki koinatuarenera. Baina laster konturatu zen koinatua lanean izango zela, han zulo, hemen zulo, non edo nongo obran etxeginen. Iloba, berriz, Ibai... hura zepoan harapatuko zuenik ez zuen ezagutzen! Osabaren ezpal onekoa izan!

Orduan, gizonfardela Enparango bibliote-




|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Baina goiz hura ordura artekoak ez bezalakoak egin zitzaion, gizonfardelak Herio ikusi zuelako Enparango zubian

kara sartu zen, laguntza eske. Hantxe ikusi zuen Mariaje, aspaldiko laguna, eta harixe agertu zion bere ondoeza, estu eta larri, hitzak bata bestearen gainera: "Egunon, Mariaje. Elkarrizketa batzuk ditzinat eginkizun Azpeitian: Kanpaxa, Inaxio Mari Olarte, Metxe Lapatxenekoa... baina Herio ikusi dinat hortxe bertan, eta keinu egin zidan, eta izuak hartu natxin. Hemendik bertara izan dun, Enparango zubian. Etzakinat, bada, nik...". Eta Mariajek orduan: "Herio Enparango zubian? Joan deneko hogeitun urtean egunero lau aldiz ere pasatu nauk ni hortik, eta egundo ez diat ikusi! Goazen, lagunduko diat!".

Herio harrituta

Eta, horrela, bibliotekako lan petralak utzi, papera paperari beti, eta Enparango zubira abiatu ziren biak. Eta, egia, eta, efektibamente, hantxe Herio, lasai asko, Urrestillako sinberguentzako zubian iduri, Mariajeri ez baina gizonfardelari begi-begietara begira-begira. Laster hartu zion kargu Mariajek: "Hi, Herio arraio hori! Zer habil hemen? Gure laguna izutu dun! Zertan egin dion keinu? Urregorritzko lana egitera etorri dun herrira! Ezin al dun jendea bakean laga, ilundu arte bada ere!". Eta Heriok, orduan: "Barkatu inor izutu badut, baina harritu egin natxin bera gaur Azpeitian ikusteak. Gaur iluntzean Gasteizen hartu behar dinat hiren lagunaren arima, eta munduan egingo duen azkeneko egunean ere lanean, eta bere bititokitik hain aparte ikusteak harritu egin natxin. Hargatik egin zionat keinu, harrituta".*



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

EMAKUUMEEN UNEA IRITSI DA

Realaren garaipen historikoa
oroitzeko erretilua **HITZA**ren eskutik

12€

8€



Salmenta puntuak:

* **HITZA**ko **HARPIDEEK** eta **MAXIATZEN, UZTARRIA, BALEIKE** eta **KARKARA**ko **BAZKIDEEK** 8 euroan (**HEDABIDEEN EGOITZETAN** erosi behariko dituzte)

ZARALUTZ Txiki Polia taberna. Juli-Juli taberna. Izorri okindegia.

ORIO Sukia taberna. Ontza paperdenda. Baraka taberna.

GETARIA Itxasge taberna. Izorri okindegia.

AZPETA Etxe-Zuri taberna. Etxaunen kiaskoa. Lagun Onak Futbol Taldaren denda



AZKOITA Heki paperdenda. Lujan. Plaza Berrí Sport.

ZESTOA Kaxote taberna. Potxolo paper eta oparidenda.

ZUMAILA Geroa taberna. Aizpurua liburutegia. Mandala.

UKAT

HITZA
•UROLA NOSTALDO•